


tüpi-ttapa

1995eko apirilak 20 • 156. zenbakia

Elkarrizketa

Estitxu AROZENA:
Bertsolari Txapelketa nagusi bat
irabazi duen lehenengo emakumea



ERRE DA
ZOZAIAKO JAUREGIA



BORTZIRIETAKO HIRI-HONDAKINEN MANKOMUNITATEA

Jakinarazten da:

1995.eko lehen urterdiko zabor bilketa eta tratamendu zerbitzuetako tasak kobratu behar direla, ondoren seinalatzen den bezalaxe:

Ordaintzeko era:

Ordainketak banketxetan helbideratu ez dituztenak:

Abisuan agertzen den kontura ordainketa eginez edozein banketxetan abisua hirukoiztua aurkeztuz.

Ordainketak banketxetan helbideratuak dituztenak:

Kontutik zuzenean kobratuko zaie.

Ordaintzeko epea:

- 1995.eko maiatzaren 31n bukatuko da.
- Ordaintzen ez bada, epea ekainaren 30a arte luzatuko da, %5aren errekargua aplikatzen ahal delarik.
- Epe hau pasatu ondoren premiamenduzko exekuzio bidez %20aren errekarguarekin kobratuko da.

Bortzirieta, 1995.eko apirilaren 5ean
PRESIDENTEAK

1995. URTEKO TASAK

ERABILTZAILAILEEN eta TASEN MAILAK

Zentsatutako etxebizitza guztiak, bertan norbait era iraunkorrean bizi ala ez: 6.300 pezeta.

Zaborrontzira 200 metrotik 500 metrora dauden baserriak: 5.360 pezeta.

Zaborrontzira 500 metrotik gora dauden baserriak: 4.410 pezeta.

1. Merkataritza eta zerbitzuak. Elikagaien eta elektragailuen sektorekoak ez direnak: mertzeriak, drogeriak, burdindegia, okindegiak, ileapaindegia, lan bulegoak: 6.300 pezeta.

2. Merkataritza. Elikagai dendak (harategiak, arraindegia, janari dendak), elektragailu dendak eta farmaziak: 12.560 pezeta.

3. Merkataritza. Autozerbitzuak: 18.860 pezeta.

1. Ostalua. Noizbehinka irekitzen diren ostalua eta biltegiak eta jarrailan irekita egoten diren bertze batzuk ere, 30 m²ko edo gutxiagoko azalera dutenak: 12.560 pezeta.

2. Ostalua. 30m² baino azalera handiagoko ostalua eta janaridenda daukaten ostalua: 25.140 pezeta.

3. Ostalua. Pub eta diskotekak: 31.420 pezeta.

1. Jatetxea. Modu iraunkorrean irekiak dauden elkarte gastronomikoak, eta borts mahai edo gutxiago dituzten jatetxeak: 31.420 pezeta.

2. Jatetxea. Borts mahai baino gehiago dituzten jatetxeak: 56.550 pezeta.

1. Hostala. Hamar logela edo gutxiagokoak: 43.970 pezeta.

2. Hostala. Hamar logela baino gehiagokoak: 62.830 pezeta.

Merkataritzako saltokiak, jate-terrik gabekoak: 62.830 pezeta.

Merkataritzako saltokiak, jate-txedunak: 94.250 pezeta.

Lantegiak, lau langile bitarte: 6.300 pezeta.

Lantegiak, 5-10 langile bitarte: 12.560 pezeta.

Lantegiak, 11-30 langile bitarte: 31.420 pezeta.

Lantegiak, 31-60 langile bitarte: 62.830 pezeta.

Lantegiak, 60 langile baino gehiagorekin: 94.250 pezeta.

Zuzenean zabortegira botatzea: 210 pezeta metro kubikoa.

DATUAK

❖ Estitxu Arozena 20 urteko bertsolari lesakarra da.

❖ Nafarroako bertsolari txapelketa irabaziz, txapelketa nagusi bat irabazi duen lehen emakumea da.

❖ Psikologia ikasketak egiten ari da Euskal Herriko Unibertsitatean 2. kurtsoan.

❖ Bertsolari perfektoa, Andoni Egañaren kalitatea, Jon Maiaren umorea eta Jon Sarasuaren estiloa bilduko lukeena litzateke bere uestez.

❖ Euskal Herriko plazetan gehien mugitzen den bertsolari nafarra da, iaz 50 saiotik goiti egin baitzituen.

TESTUA :
AITOR AROZENA
ARGAZKIA:
ANTTON ERKIZIA

Estitxu AROZENA:

«Bertsolaritzan berdintasunerako lehen pausuak ematen ari gara»

KARTZELEKO GAIA BUKATU ETA BERTZE BERTSOLARIAK ADITZEKO AUKERA IZAN ZENUEN. NOR IKUSTEN ZENUEN TXAPELDUN BEZALA?


Normalean bizpahiru nagusi ikusten dituzu bainan Leitza ez nuen inor nabarmen somatzen, denei akatsen bat ikusi nien. Ez nuen inor txapeldun ikusi.

TXAPELA, INPOSAKETEN AURKA BORROKATU DUTEN NESKEI ESKEINI DIEZU. ZER ALDARAZI DU BERTSO MUNDUAN EMAKUMEEN PRESENTZIAK?

Gizonak frenatzea lortu dugu, bertsolaritza matxista izan den heinean bertsogintza ere matxista izan baita. Emakumeok sartzearekin gehiago neuritzen dituzte hitzak eta ez dute lehen bezalako astokeriarik erraten. Berdintasun baterako lehen pausuak ematen ari gara.

NAFARROAKO TXAPELKETA IRABAZI DUEN PERTSONA GAZTEENA ERE ZU ZARA. ZER APORTATZEN AHAL DIO BELAUNALDI BERRIKO BERTSOLARITZARI?

Nafarroa mailan bertsolaritzak irautea da gure aportazioa. Orain arte hori ere du-



datan paratzen zen. Bertsolari gazteena Bittor zen eta hurrengoari kriston aldearekin. Aportatzen ahal dugun gauzarik oinarrizkoena irautea da eta gero bertsolari bakoitzak aportatu dezakeena, frexkotasuna, originaltasuna...

ZEIN EZBERDIN-

»Nafarroa mailan bertsolaritzak irautea da bertsolari gazteok eskeini dezakegun aportaziorik oinarrizkoena, orain arte hori ere dudatan paratzen baitzen.»

TASUN SOMATZEN DA LEHENGO ETA ESKOLA BERRIKO BERTSOLARIEN ARTEAN?

Ideien aldetik da nabarmenena. Guk idea hori bertso bukaeran, ahalik eta potenteena botatzen dugu. Zaharrek berriz, deskripzio gehiago egiten dituzte, bertsoa gehiago betetzen dute nahiz eta bukaera flojoagoa izan. Hitz erabileraren aldetik ere nabari da. Guk erdarazko hitz gehiago sartzen ditugu, bainan edozein euskaldu-

naren hizkeran sartzen diren heinean.

TXAPELDUN IZANIK GEHIAGO EXIJITUKO DIZUTE HEMENDIK AITZINERA?

Espero dut ezetz, bertzela neurria eman beharko da eta ez dakit gai izanen naizen. Txapel honek hurrengo txapelketa ailegatzean izanen du eragirik haundiena. Txapela probatu eta gero jendeak gehiago eskatzen ditu bainan saiotan ez dut uste gehiago eskatuko dutenik.

BEHAR BEZALAKO ASEGUROAK EGITEAREN ABANTAILA EZBEHARRETAN SOMATZEN DA

Garai batean etxe bat erre edo bertze edozein ezbehar gertatzen zenean, nahitaezko kontua izaten zen auzora jotzea laguntza eske. Orduan, garai haietan, ez zen bertze erremediorik izaten. Denborarekin, ordea, estutasun eta larrialdi horiei aurre egiteko 'mutuak' eta klase guzitako aseguruak jarri ziren martxan, eta itxuraz bederen, eskean ibili beharri erremedioa bilatua zitzaion. Bainan ez, hemen arras gibeluak gabiltza. Oraindik orain, aseguro egokien faltan, jendea eskean ibiltzen da.

TESTUA :

JOXEMANUEL IRIGOIEN

ARGAZKIAK:

KARMELE TOLOSA

badago errana desgrazia gertatu baino lehen oroitu behar dela erremedioa jartzeaz, bainan halere, nahi baino gehiagotan ez zaigu horrelakorik burutik pasatzen gertatzen molatzeko erremedio onik ez dagoen arte. Zentzu horretan, suteak kaltetutako etxe eta baserriek laguntzeko 'mu-

tuak' antolatzen hasi ziren han eta hemen duela urte dezentxe.

Mutua hauek udalerrri mailakoak izaten dira gehienak, eta bereziki, etxe edo baserri bat erretzen denerako daude pentsatuak. Dena dela, herri batetik bertzerara modu diferentean eboluzionatu dute, eta gaur egun, herri batzuetakoak bertze batzuetakoak baino gaurkotuagoak daudela ematen du. Momentu haue-

tan, gaurkotze prozesu horretan sartua dago, errate baterako, Baztango udalak kudeatzen duen Mutua. Izan ere, bere egoera 'alegala' dela diote gai hauetan adituak diren zenbaitzuk.

Erabat gaurkotua eta Nafarroa mailan eredugarritzat kontsideratua den mutua hoietako bat Leitzakoa da. Leitzan duela urte batzuk erabat gaurkotu egin zuten planteamendua eta antolamendua





bera. Aseguro-etxe batekin, baserriak eta azindak dituzten etxeak dituzte aseguratutako kapitala 15-20 milioi pezetakoa da, eta urtero bizi kostearen arabera errebaloratu egiten dute.

GAUR NORMALENA 'ARRISKU ASKOTARAKO ASEURUA' DA

Dena dela, mutuaz aparte, eta batez ere azken urteotan, aseguro pribatuak kontratatze-

GAINEKO ARGAZKIAN ZOZAIAKO JAUREGIA DUGU. AURTEN BAZTANEN ERRE DEN BIGARREN ETXEA DA. URTEBERRI EGUNEAN ERRE ZEN BELATEKO GAINEN BERTZE ARGAZKIAN, AGERI DENA, ALMANDOZKO ESTIZELAI BASERRIA.

ko joera nagusitu egin da. Aseguro hauen bitartez interesatu bakoitzak egiten du berak behar duen aseguro poliza, eta kontratu hoietan zehazten da zer den aseguratutako nahi dena (etxea, etxearen barneko gauza eta tresnak, erantzunkizun zibila...) zeren kontrako aseguruaren (sua, ura, lapurretak...), arrisku bat baino gehiagoren kon-

trako aseguruaren (multiriesgo), eta horrela bakoitzari interesatzen zaion neurriera egin arte.

OROKORREAN, ZONAKO EGOERA KAXKARRA DA

'Segur nago gaur egun Baztango baserrien erdiak ere ez dutela inolako aseguratorik'. Horrela solastu zaitugu Pablo Ballarena, EHNE sindikatuan aseguroen kontuetan arduratzen den amaiurtarra. Lesakako Ascen Ordoki ere eritzi berekoa da. Ascenek dioenez 'generale-

an jendea ez dago mentalizatua aseguro on bat egiteak duen garrantziarekin. Auniztan seguru txar bat egiten da urtean mila pezetako batzuk guttiago pagatzeko, eta gero, zerbait gertatzen denean, balore guzua kobratu nahi izaten dugu'.

ESKEAN IBILTZEAREN KONTRAKO ERITZIAK

Egoera kaxkar honen ondorioetako bat zera izaten da: ez beharra gertatzen denean, herri herri eta etxe etxe eskean ibili beharra. Eta egia erran, gero eta marmari gehiago entzuten dira eske hauek direla eta. 'Begizu, tartean dirua dagoenez gauza delikatu izaten da. Bertze aunitzeri bezala niri ere berriki suertatu zait deustik ezagutzen ez duzun jendea etxera etortzea dirua eskaka, herriko inoren laguntzarik gabe eta sikiera ibiltzekoak zirela jakin gabe. Dirua eman nien, eta gero, ez naiz deus gehiagotaz enteratu, ez eskeak eman duen emaitza eta ez deus bertzetaz. Ezin dira gauzak horrela egin.' Halaxe mintzatu zitzaizun bere izena isilpean gordetzea nahia gero duen lagun bat.

Dena den, argi dago eskean ibiltzea ez dela erremedioa, eta erremedioa zerbait izatekotan, aseguratutako ez dauden etxeak behingoz behar bezala aseguratzea dela. ■



Ascen ORDOKI
Aseguru saltzailea

«Aseguro ona eginez gero, zerbait gertatzen denean ez dago eskean ibili beharrik»

■ Normalean, nola aseguratzen dira etxeak?

□ Hastekoz, aseguroen polizetan bi kontzeptu desberdintzen dira. Batetik etxea bera (lau paretak, egitura...) eta bertetik etxearen barnean dauden gauza eta tresna guztiak (edukia). Kontinentea eta kontenidoa. Eta aipatutakoaz aparte, erantzunkizun zibila deitzen dena ere sartzen da. Hau arrisportantea da eta pentsa-

tzen dut jendeak ez duela sobera ezagutzen.

■ Balorearen kontua nola izaten da?

□ Aseguratzen den etxe eta etxe horren barneko gauzen balorea bakoitzak jartzen du. Dena dela, ni beti saiatzen naiz egiazko balorea jartzen, zerbait gertatzen bada hobe izaten baita horrela. Balorearen azpitik aseguratzen baldin bada, zerbait gertatu ezkerok badakizu zer duzun. Eta

balorearen gainetik eginez gero, peritoak etortzen direnean agertu egiten da. Hortaz, hobe da bere balorearen aseguratzea gauzak.

■ Gauzak behar bezala ez egiteagatik, nola ikusten duzu eskean ibiltzeraren kontua?

□ Ez litzatekeen ibili behar harko. Behar bezalako aseguroa egin ezkerok ez dago eskean ibili beharrik. Gaur horrek ez du sentidurik.

LEGE GORDAILUA: NA-1324/85
FRANKEO ITUNDUA: 34/79
TIRADA: 5.950 ALE

ARGITARATZAILEA: TTIPI-TTAPA KE
HERRIKO ETXeko PLAZA, 1
31780 BERA
TFNOA: 63 11 88
FAXA: 63 12 91

Zuzendaria: Joxemanuel Iri-
goien. **Publizitatea:** Miren Kar-
mele Tolosa. **Erredakzioa:** Aitor
Arozena, Joxemanuel Irigoien.
Administrazioa: Amaia Goia.
Erredakzio taldea: Pello Ape-
zetxea, Juainas Paul, Kristina
Boan, Bittori Telletxea.
Berriemaileak: Joseba Azpiroz,
Esteban Arozena, Juana Mari
Saizar, Ainhoa Mutuberria, Iban
Asasi, Txema Aldabe, Pello
Etxegia, Txema Urroz, Patxi
Dtxandorena, Daniel Martirena,
Xabiel Maia, Josune Etxebeste,
Pablo Mendiburu, Joseba
Garabide, Alizia Olaizola, Margari
Etxenike, Koro Irazoki, Mixel
Gerendiain, Jacqueline, Elixabet
Turria, Garbiñe Maiz, Oskar
Txoperena, Alberto Sansiñena,
Pello Apezetxea, Aitor Arozena,
Kristina Boan. **Kolaboratzaileak:**
EHNE Nafarroa, Patxi Lasa, Mikel
Bezunartea, Joxe Javier Etxe-
berria, Arantxa Zabala...

primategia: Gertu (Oñati).
ttipi-ttapak ez du bere gain har-
zen derrigorrez, aldizkarian adie-
zazitako erranen eta eritzien eran-
zuzukizunik.

Erakunde Laguntzaileak: Bera,
Leitza, Goizueta, Areso, Baztan,
Urdazubi, Zugarramurdi eta
Garako udalak, Bortziritako
Euskara Mankomunitatea,
Malerrekako Zerbitzu Mankomu-
nitatea...



Aldizkari honek Nafarroako
Gobernuaren laguntza jaso du

GAURKOTASUNeko GAIA

Hauteskunde municipalak begibistan

Dagoen kaka usaina garbitzea asko kostako da



Antton ERKIZIA
Egineko berriemailea

Obra lan asko burutu da gure herrietan azken urteotan, diru publikoa parrastan erabiliz, baina kontrol eskaxa, hori da kanpotik sumatzen dena. Horrekin batera, politika munduan entzun eta ikusi diren desmadreak, gezurrak, ustelkeria, lapurretak... kiratsa hori Udaletara ere iritsi da, kaka usaina erabat dago hedatua, eta instituzio publiko guztiak daude oso desakreditatuak. Zer datorren? Ez da leporik moztuko eta gauzak ahazten joanen gara. Botoetan, gauzak ez dira gehiegi aldatuko. Gure zonaldean, partidu bakoitzak bere jende-ari eutsiko dio, Alliren alderdi berria nobedade, baina, absentzioa bera ere ez da asko gehituko, ez uste. Jendea joan joanen da botoa ematera, 'Pazkoz' egitera bezala, bada ezpada ere. Eta biharamunean, bakoitza berearekin. Herriarentzat lan egitea nahi dugu, baina besteak egitea, geuretzat konpromezurik gabe. Lapurretak ederki irabaziak ditugu, axolagabe batzuk garelako herriaren gauzeekin.

Herritarren partehartzea oraindik bete gabe dago



Inder SANTAMARIA
DN-ko berriemailea

Alderdiak murgilduak dabil-tzan hauteskunde aitzineko giroaren lehen irakurketak, errealitate gordina erakusten digu: Dantzarinea-Leitza-Endarlatsa hiruki geografikoan guziak zailtasun izugarriak dituztela zerrendak osatzeko. Hau arazo serioa eta gero eta haundiagoa da. Sistema honetan herritarren partehartzea oraindik bete gabe dagoela adierazten du. Auniztan, alderdi eta instituzioek herritarren partehartzea bizitza publikoan bultzatu behar dutela ahazten dute, hau da, guztio-na denean guztiok arduratu eta interesatu behar dugula. Hauteskundeak egun bat irauten du baina legealdiak lau. Ez da nahikoa herritarrengana soilik botoa lortzeko hurbiltzea, kontutan hartu behar zaio, kontsultatu, parte hartzera bultzatu eta 'gauza publikoan' interesarazi behar zaio. Oraina gaur da, etorkizuna prestatzeko denbora. Partehartzea baldin badago (eta beharrezkoa da egotea) ar-dura duten herritarrak egonen dira eta ez dira hautagaiak faltatuko.

Harmonia



Zarbo IBARROLA
DV-ko berriemailea

Datozen hauteskundeak ekar-tzen ahal digute-naz hitzegiteko, lehenik, az-ken lau urte hauen balantzea egin beharra dago. Donezteben, errate baterako, hitz klabea 'harmonia' litzate-ke. Zintzoak bagara, onartu behar dugu obra pila egin de-la, eta datorren kanpaina honetan alkateak eta bere talde-ak ederki gogoraraziko digu-te hori. Baina interesgarrie-na, nobedosa delako, talde desberdinen artean egon den elkar hartzea da. Bertze hitz batzurekin erranez: talde gu-ziak ongi moldatu dira elka-rren artean. Bakoitzak atera ditzala hortik bere ondorioak. Datozen hauteskunde hauek amerikar estilokoak dirudite, Demokratik Errepublikarren kontra, baldin eta azken mo-mentuan sorpresarik ez bal-din bada gertatzen. Alkate-tzarako Eusko Alkartasuna eta Unión Doneztebarra lehiatu-ko dira. Edozein dela irabaz-le, segur naiz, onerako edo txar-rerako lagun minak izaten se-gituko dutela. Donezteberen onerako izan dadila.



ANSONEA JATETXEA

Kontsultatu menu bereziak

Foruen Plaza 1, Tfnoa: 630072 • BERA



LANCHAS

- Parketak - Tarimak
- Kutxillatzea eta bernizatzeak
- Estaldura Orokorrak

Bera © 630735
Irun © (943) 622305



Aupa Taugres!

Julen ZELAIETA
Bortzrietako Bertso Eskola
Doinua: Aita izena...
Neurria: Hamarreko
Haundia

*Lehenago urtean emana zuen
Europa osotik bira
bainan eskuak hutsik etorri
zitzaiagun Euskal Herrira
orain Kopa bat irabazita
daude Ligari begira
gasteiztar askon begi barnean
nabaria da dizdira
Taugresek zitun amets erdiak
egi bihurtu bait dira (bis).*

*Holakorikan Taugresek behintzat
ez du ikusi bizitzan
bi asteetan agertu dira
jada haundien gerizan
txapeldun eta txapeldunorde
etorri dira bisitan
bat irabazi, bestea galdu
ta orain ligaren bistan
ligaren jabe egingo dira
hortan dudarik ez izan (bis).*

Zer ari da gertatzen Goizuetan?

Goizueta maite dugun guztiok, ezin dugu utzi urteak pasatzen Goizuetako ekologiaren egoerari buruz ezer egin gabe.

Atzo egon ginen herriko argazki batzuk ikusten orain dela 40 edo 50 urtekoak. Orduko argazki haietan, nahiz eta koloreak ez berezi, parajeen berdetasuna igertzen da. Orain berriz, nahiz eta herria eta bere ingurua kolore guztiakin ikusi, gure bazterrak heriotzaren bidea hartu dutela iduritzen zaigu.

Non dira orduko zuhaitz pila eta sendo haiek? Non dira orduko erreka garbi haiek? Badakigu, mendian zuhaitzak besterik izatera ez dela komenigarria, azindak pazkatzeko partzelak ere behar dira. Badakigu ongi banatu behar direla, basoak, baratzak, belasoak, e.a., bainan Goizuetan ordun eta baso gutxiago daude (esate bateko, Mandoegiko basoa bakarrik gelditzen zaigu. Artikutza?), ordun eta zuhaitz gutxiago daude, ordun eta erreagoak daude gure mendiak. Mendiaren soiltasunak zer dakarkigun, jendeari ez zaiola axola iduritzen zai-

gu: mendiaren erosioa heldu da zuhaitzaren laguntzarik gabe; euriak urteekin azaleko lurra eramaten du eta azpian dauden arkaitzak azaltzen hasten dira. Noiz ikusi da harkaitz baten gainean pago bat landatzen? Ondoreak beldurgarriak dira eta ipurdia mugitzen hasi behar dugula adierazten digu.

Guk ez dugu lasai lo egingo, hemendik urte batzutaraz gazteek esaten badigute: "Zuen gazte denboretan ez zenuten deusegin, eta begiratu zer nolako oparria utzi diguzuen Goizuetako mendietan".

Horregatik, Goizuetako Udaletxeari (gauz hoietan poterea duena) eskatuko genioke, lehenbaitlehen arazo larri honi erabaki bat ematea. Herriko mendi politikan aldaketa batzuk hartu behar dira, Nafarroako herri batzuk hartu dituzten erabakiak ikasi eta behar bada gure herriarentzat erabili. Herriar eta baserritarrekin bilerak antolatu, bakoitzak bere ideiak eman ditzan eta pausoka-pausoka kontsentsu batera ailegatu. Gazte eta heldu asko gaude laguntzeko prest.

ANTTON ETA SUSANA, GOIZUETAR
BI GAZTE

Oroigarri lotsagarriak oraindik

Nahiz Lesakako baztertxo polit horretik bakan xamar pasatu (ez gara sobera sinistunak), aldi bakoitzean nere begiek ezin dute alde batera utzi elizako bidean dagoen *Caidos por la patria*, Espainiako Gerrako oroigarri lotsagarria.

Eta lotsagarria, ez han oroitazten direnak ez dutelako merezi ideal batengatik hil denaren errekonozimendua, baizik *Irabazlearen* oroigarria delako, bere hilak bakarrik gorai patzen dituen, eta ez legea eta askatasunaren alde borrokatu zutenenak... galtzailak. Diktadorea hil zenetik urteak pasatu ondoren eta elkarrekin adixkidetu eta zauriak ahanzteko denboria pasatu denean, oraindik min egiten dit oroigarri iraingarri horrek. Ez dezagun pentsa bazter batean izateagatik eta 50 urtez ikusi eta gero ia kasorik egiten ez diogulako bere zentzua galdu duenik. Ez, orduko gorrotoaren oroigarri apurtu ditzagun behingoz. Udaletxeak zerbitu egin dezake berteetan egin dituzten bezala.

J. ITURRIA (LESAKA)



LESAKA



MATXINBELTZENA

LESAKA

Arretxea, 22 • Tel.: 62 75 73, Faxa: 62 75 53 • LESAKA

KATTU
OSTATUA
JATETXEA



**ETXANDI
TXOKO
erretegia**

Bazkari, afari eta
gosariak

ITUREN
Tfnoa: 45 04 91



ARGIA 95-IV-9

«Errelebo traumatikoa ari zaigu jartzen. Inigo Olaetxeari finalaurrean egin ziotena ezin da egin, eta hortik dator arazoa».

Estitxu AROZENA

Lesakako bertsolaria
Argia 95-IV-9

«Talde batzuek ez dute oraindik Zurkaitza Kultur Elkartean partehartzea erabaki, Bertizko

Partzuergoarekin izan litekeen harremana dela eta».

Juinas PAUL
Langarra Taldekoa
Bafarkaria 95-IV-7

- ◆ **Zer moduz leku berrian?**
- ◆ Arrontz ongi.
- ◆ **Jende gehiago etortzen da orain?**
- ◆ Betikoa, bainan espero dugu jende kopurua haunditzea.
- ◆ **Neska bakarra izanik lantokian, ongi moldatzen zara?**
- ◆ Espezial, arras ongi portatzen dira nerekin.
- ◆ **Sumatzen da neska baten eragina?**
- ◆ Bai, batez ere bulego kontutan.
- ◆ **Elektronika mundua ezaguna zenuen?**
- ◆ Lehendik esperientzia pixka bat banuen bainan gehiago ikasi behar dut oraindik.
- ◆ **Euskaraz idatzitako fakturak ailegatzen zaizkizu?**
- ◆ Hagitz gutti.
- ◆ **Bizitzeko herri ttikia edo haundia?**
- ◆ Ttikia nahiago.
- ◆ **Oporretan mendialdera edo itxasoaldera?**
- ◆ Itxaso aldera, Costa Brava-ra.
- ◆ **Kirolarik egiten duzu?**
- ◆ Gutti, baina egunero ibiltzen naiz eta palaz ere noizbehinka.
- ◆ **Ttikia zinenean, zer pentsatzen zenuen izatea haunditzerakoan?**
- ◆ Andereñoa.
- ◆ **Bertute bat eta defektu bat...**
- ◆ Bertute aldetik sinpatia, eta defektuari dagokionez sobera aguantatzea eta gero etxean botatzea.

**Pili LIZARDI**

Beroko Bortziri Zerbitzu
Teknikoko langilea



Irungo errepidea - BERA - Tel. 948-631317

HARRI NATURALA**ATERATZEA eta LANTZEA**

Antzinaldeak	Tximiniak
Angeluak	Érlaizak
Orma antzinak	Moldurak
Leihoak	Zokaloak
Ateak	Hilarriak
Arkuak	Marrazkiak
Pilareak	

'Abujardaloa' Mazizoa
Zahar antzekoa Txapeatua

ZINTARRIAK
ADOKINAK
ZOLAK



ZALAIN
J A T E T X E A

EGUNEKO MENUA ETA KARTA


Zalain Auzoa

☎ 63 09 67

BERA

Boda eta banketeak ematen dira

LOZOTEGI - JAIONE



Itzea 3 • 630786 • BERA

E D A R I A K



MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa K. 82 - 31780 BERA

Tel. - Fax: 948. 63 10 27

GRUPO
ZURICH



A SEGURO
OROKORRAK

Itzea, 4 — BERA

☎ 63 07 63

Bera

ELA garaile Funbera-ko hauteskunde sindikaletan

Bortz delegatuetatik lau berak eskuratu ditu eta LABek bertzea

KRISTINA BOAN

Martxoaren 27an burutu ziren Funbera lantegiko hauteskunde sindikalak. Bertan hiru talde aurkeztu ziren, ELA, LAB eta independenteak.

Botuen kontaketa egin ondotik, ELA atarazten garaile, bortz ordezkarietatik lau beraiantzat izan baitziren. Hauek izanen dira: Jesus Mari Telletxea, Antton Eskudero, Juan Karlos Huizi eta Julio Fernandez. LABek ordezkari bakarra eskuratu zuen, Juan Miguel Almanoz hain zuzen.



Miriam Erkizia, Maite Iturralde eta Mirentxu Garcia de Dios Gure Txokoako jokalariek Euskadiko 16 urtetik behitiko futbol selekzioan parte hartu dute. Gironako Lloret de Mar-era joan ziren eta Andaluzia, Valentzia eta Kataluniaren kontra aritu dira, garaile geratuz.

55 milioi pezeta inbertituko dira hamasei baserritarako bideak moldatzen

Zelaiborda, Larreteña, Plazidobaita, Saldesbera, Mari-txenbizkar, Maritxen-txoko, Bastida, Egurre, Esenenborda, Arran-bide, Eltzapekoborda, Landaburuborda, Eskribenekoborda, Peña-borda, Bustiola eta

Apeztegiakobordako pistak moldatzeko, Nafarroako Gobernuak 39,4 milioi pezeta dirulaguntza onartu berri du. Gainerakoaren finantziarioa Berako udalaren bizkar geldituko da.

Denetara 7,2 kilo-

metro moldatuko dira, maldarik haundien-tan ormigoizko zola emanez eta zatirik zelait-suenetan asfaltoa.

Obra hauek laister hasiko dira eta proiektuaren arabera lau hilabetetara akautuak egon beharko dute.

Bertso saioa maiatzaren 7an

Maddalen Lujanbio, Estitxu Arozena, Peñagarikano, Egaña, Elizagoien eta Jon Sarasua arituko dira bertsotan maiatzaren 7an, arratsaldeko 5etan Kultur Etxean. Gai-jartzailea M. Taberna izanen da.

ttipi-flash


◆ **Ikasle sarituak**
Toki Ona institutu-ko bi ikasle sarituak izan dira Nafarroako Gobernuak Batxilergoko ikasleen artean egin duen Literatur lehiaketan: Iban Rodrigezek narratibako lehen saria irabazi du eta Idoia Bereauk ipuingintzako hiru-garren saria.

◆ **Dantzari Eguna**
Gure Txokoako dantzariak apirilaren 22 eta 23an Nafarroako Dantzari egunean parte hartuko dute. 600 dantzari inguru Tuteran bilduko dira 23an. Bezperan Erriberako hainbat herritan banatuko dira. Berakoei Fustiñanara joatea egokitu zaie.

◆ **Liburuaren Eguna**
Apirilaren 23an ospatuko da, bainan igandea denez ospakizuna gibelera-tuko da. Alfonso Sastreren hitzaldia eta testu irakurketa izanen dira. Gure Txokoak Ipuin lehiaketako sariak banatzeko aprobe-txatuko du apirilaren 23a.



SAROB
okindegia



SANDERS Pentsuak
Eztegara 41, Tfnoa: 63 08 99 - BERA

BOTXO
ostatua

Tfnoa: 63 00 52
Zalain Auzoa, BERA

OKANE

HARATEGIA • URDAITEGIA

Kanttonberri 4, Tfnoa: 63 00 18 • BERA

ZIZKA OSTATUA

Martxa eta mozkor saltsa
Altzate 28 • BERA

Lesaka

Herriko lur guztiak ehizi kotoa izanen dira 2004. urtera arte


Jabea udala izanen bada ere, Pagolleta herriko ehiztari elkarteak izanen du aprobetxamendurako eskubidea

AITOR AROZENA

Lesakako udalak herriko lur guztiak, herrigunetik hurbil daudenak ezik, ehizi koto publikoa izatea eskatu dio Nafarroako Gobernu Lurralde Antolaketa eta Ingurugiro sailari. Kotoaren iraupena, 2004. urteko ehizi denboraldia akautu artekoa izanen da.

Kotoaren nagusia udala izanen bada ere, ehiziaren aprobetxamendua zuzenean 'Pagolleta' herriko ehiztari elkarteari emanen zaio. Horretarako, ehiztariak 329.063 pezeta ordaindu beharko dute urtero. Kopuru hau, urtero berri ahaz izanen da bizitzaren kostuaren igoeraren arabera.

Bertalde, pleno beran aurtengo sanferminetako kartel eta programaren azal lehiaketarako oinarriak ahobatez onartu ondoren, laister zabalduko da lanak bidaltzeko epea.



Estitxu Arozena da Nafarroako bertsolarien txapelketa Leitzako finalean nagusitu ondoren. Manolo aita bigarrena izan zen eta Xabier Silveirak 8. postuarekin konformatu behar izan zuen

Sokatira taldea Nafarroako txapelketa 640 kilotan

Lekunberriko azken proban nagusitu ondoren txapel berri baten jabe egin dira Beti Gazteko sokatirialariak, oraingoan 640 kilotan. Bigarren postuan Aresoko taldea sailkatu zen, hirugarren Amaiur, laugarren Larraun eta

bortzgarren Araiz Betelu. Dagoeneko 600 kiloko txapelketa hasiak dira, honetan ere, 640 eta 680 kilotan egin duten bezala, Nafarroako txapela herrira ekartzeko. Gogoia eta indarra ez zaie falta eta seguru lortuko dutela.

Panela erreka

Arranoaren atarian paratua zegoen panela (legea betez aske egon beharko luketen presoaren argazkiekin) paretatik kendu eta su eman zioten ezezagun batzuk goizalde batean. Sua pizteko, ondoren zuten periodiko paketea (Euskaldunon Egunkaria eta Egin) erabili zituzten.

ttipi-flash

❖ **Emakumeen** bederatzigarren gomazko paleta txapelketa hasteko puntu dago. Arkupe elkartearen antolatutako ekitaldi honetan izen emateko epea hileraren 15an bukatzen zen.

❖ **Beti Gazte** elkarteak 283.966 pezetako dirulaguntza jaso du udaletik joan den urtean futbol zelaian eta aldageletan egindako moldaketengatik. Alhondigako egoitza elkartearen eskuetara pasatzeko lehen pausuek eman ditu udalak.

❖ **Garapenerako agentea** kontratatu du urte baterako udalak. Bortzirriak eta Mallerrekako lanak egiten du Cederna-Garalur-eko Arantxa Arregik.

IRU BIDE
ERRETEGIA
Tfnoa: 637127
LESACA

ESTHER ATEAK, C.B.
Zarandia 9, ☎ 627584 - LESACA
☎ (943) 610319 - IRUN

- ➔ Parket flotantea
- ➔ Tarima
- ➔ Kortxoak
- ➔ Ate korrederoak dituzten armarioak
- ➔ Paretan sartzeko armarioak

EROSLE
LESACA

Kalitate-prezio arteko orekarik hoberena

Frexkuena
zugandik hurbilago

Bittiria, 67 - ☎ 637264

Deñe
LENTZERIA
MERTZERIA
Tfnoa.: 62 75 14
Behoko Plaza 8, LESACA

Larraburutik Arrosearako bidea hobetzeko proiektua eginen da

Nafarroako Gobernuak milioi bat pezeta onartu ditu horretarako

EtXalar

PELLO ETA ALBERTO

Nafarroako Gobernuak 1.028.000 Pta. erabiliko ditu Larraburutik Arroseara eramaten duen bidearen moldatze proiektua egiteko. Aldiberean, obra hori nork eginen duen erabakitzeke, adjudikazio prozesua martxan jartzea erabaki zuen.

Altxataren kontu eta asmoak

Apirilaren 2an burututako urteko batzarrean agertu zituen elkar-teak 1994. urteko diru gora-beherak. Denetara, 1.285.940 pezeta gastatu zituen eta 1.434.825 bildu. Bil-dutakoa 148.885 gehiago ageri bada ere, egitan zorretan bukatu dute urtea, nahiz ez



Udaberrian egurra moztzen

Argazkia: Pello APEZETXEA

haundia izan; oraindik ordaindu beharrak baitituzte. Juntarako Jose Mari Maia eta Axun Maia sartu dira, atera diren Mikel Arburua eta Imanol Iturria ordeztuz. Urteko ekintza nagusia, berriz ere, ekaineko Kultur Egu-

nak izanen da, Feria eguna gasna lehiaketa eta artisauen erakusketarekin, haurren eguna...

Aziendak aterarazi

Igantziako Udalak plantazioak egin behar dituela Anyo mendian

eta, azienda guziki handik erretiratzeko bandoa eman du. Norberak ez erretiratu gero, Udalak eramanen omen ditu.

Ipuin topaketa

Aste Santurako banatu da haurren artean ipuinak idazteko deia,

ttipi-flash

Herriko etxeko kontuak eta aurrekontuak

Udalak 115 milioi pezetako diru sarrerak izan ditu 1994an. Ordaindutakoak, berriz, 98 milioi. Ondorioz, 16 milioi gelditzen ziren urte bukaeran. Heldu den urteko aurrekontua 108 milioi pezetakoa da.

Haurren Egunean irakurriko direnak. Orain arte 'lehiaketa' izena ematen ziztaionari, 'topaketa' deituko zaio. Nor gehiagokako jokoez dela sobera ego-kia eta, denek jasoko dute topaketaren oroitzen bat.

LORA DENDA

TXIRULA
 Bitirio LESAKA
 627542
 bitxikeriak • opariak • eskulangintza

BEREAU
 jatetxea • Hotela
 Lesakako Bidegurutzean
 Tfnoa: 637382 • 627509 - Faxa: 627647
LESAKA

XATURETXEA

JATETXEA
 Tfnoa: 63 70 27 LESAKA

HERRIKO OSTATUA
Jatetxea
 Urte berriarekin batera indarberrituak
 Kuadrila, elkarte etabarrentzat... menu bereziak prestatzen dira

© 635290
ETXALAR

HARITZPE
JATETXEA

KAXULAK • GOSARIAK • BAZKARIAK
 Sukaldaritzarik hobereana xokorik politenean

GurutzeEtxea - Jauregieta auzoa - © 635038
 • ETXALAR (NAFARROA) •

Igantzi

Aurten eginen ote da Berrizaungo zubi berria?

Apirilaren 22an eginen da Goizuetarako ibilaldia

OSKAR TXOPERENA

71 milioi gostako omen da Berrizaungo zubi egitea. Urteak joan dira lehendabiziko probak egin zirenetik eta, beti hastekotan daudela aditzen ari bagara ere, ez berririk ezta zaharraren zola moldatu ere ez dutela egiten ikusten ari gara. Bertan erraten zenez, sei hilabeteko epea izanen dute lana hasiz geroztik bukaera eman arte, denbora luzea aranztar eta igantziarrok nola ibili beharko dugun jakinda.

Erradiografi bilketa

Kanpaina berria paratu dute martxan etxean zokoratuta dauzkagun baliorik gabeko



Hankaz goiti izan dugu herria azken asteotan ur sarea eta saneamendua dela medio. Gogor aritu dira lanean ur sarearen tubo berria lurpean sartzeko, aste pare batez egin baitituzte egin beharrekoak. Berrizaunen berriz, zer eginik badago oraindik, lanak atzeratuagoak daude eta. Erran beharra dago arazoak ere izan direla lurren jabeekin, konprenigarriak beti ere, gauzak hobekiago egiten ahal direla ematen baitu beti. Ez litzateke txarra ere informazioa jendeari bere garaian ematea

Arg.: OSKAR

erradiografiei erabile-
ra emateko. Kanpainari
"Mugarik gabeko
Botikariak" taldeak
eman dio hasiera. Bi

helburu lortu nahi dira kanpainarekin: alde batetik, hain kutsatzaileak diren erradiografiak zaborontzitarra

joan ez daitezten lortu nahi da, eta bertetik, erradiografiei kentzen ahal zaien zilarrarekin hirugarren munduan

zenbait proiektu aitzinera atera. Ezin hobekak bi helburuak. Badakizue orduan, herriko botikara eraman itazue, zokoratuta dauzkazuenak.

Goizuetara ibilaldia

Martxoaren 26an izan genituen bisitan goizuetarrak eta denbora sobera pasatu gabe, bisita apirilaren 22an itzultzea pentsatu dute Biltokikoek. Joateko, Biltokin dagoen zerrendan eman beharko da izena, bertan bazkaldu eta autobusean itzuli behar dutenen kopurua jakin behar baita. Ea eguraldiak goizuetarrei adina laguntzen dien joan behar duten igantziarrei ere.



J. RAMOS

Zolak akutxilatuta eta barnizatzen dittut

© 631342 BERA • © 637172 LESAKA

ttipi-ttapa

6.000 harpidedun 20.000 irakurle

ttipi-ttapa-rekin zure publizitatearen zonalde sukalde-roko guzitan izanen duzu

LEGAPEA

Legarrea, 9 • © 63 70 30 • LESAKA

ESKANTZAK

Maiatzaren 31 bitarte baliagarriak dira

• 'Elite' munduaren esfera	4.495 Pta.	2.850 Pta.
• 'Marco Polo' " "	6.950 Pta.	4.350 Pta.
• Eskola motxila	3.395 Pta.	2.695 Pta.
• Margoen maletina (86)	2.800 Pta.	1.895 Pta.
• 'Liliput' grapadora	440 Pta.	359 Pta.
• 'Petrus' taladroa	520 Pta.	465 Pta.
• Ttikiendako plumierra	1.975 Pta.	1.225 Pta.
• 'Carioca' errotuladoreak (12)	202 Pta.	169 Pta.
• 'Pentel' boligrafoa	141 Pta.	129 Pta.
• 'Loan' talonarioa	340 Pta.	250 Pta.
• 'Jovi' temperak	840 Pta.	727 Pta.
• 'Papermate' korrektorea	345 Pta.	295 Pta.



TALPREN S.L.

Instalazioak, ekipamenduak, kirol eta aisialdirako zolak

- Etxean kirola egiteko tresnak (Arrauna, bizikleta finkoa)
- Bizikletak (mendikoak eta osagarriak)
- Saunak, masaiarako tresnak

ERAKUSKETA eta SALMENTA

Prudencio Arbide 2, behea IRUN (Herriko Etxearen ondoan)

☎ 943 - 63 19 56 Faxes: 943 - 63 19 59



Herriak omenaldi hunkigarria eskeini zion Antton Maiz-i

Hainbat opari jaso ondotik, pilota partidua irabazi zuen Julian Retegirekin batera, Errandonea eta Retegi III.aren kontra

GARBIÑE ETA ELIXABET

Martxoaren 26an, igandean, Antton Maiz pilotariari omenaldia eskeini zion Arantzako herriak.

Meza nagusiarekin hasiera eman zitzaion eta gero, frontoian, herriko dantzari txikiak dantzaldi bat eskeini zioten. Ondoren, herriko bi pilotari gaztek, Errandonea eta Agestak, pilota partidua jokatu zuten Lakuntza eta Chaffeeren aurka, 22 eta 13 irabaziz. Luis berriro txingen errekorra egiten saiatu zen, baina oraingoan ere ez zuen lortu. Azkenean omenaldiko momenturik hunkigarriena iritsi zen, Anttoni herriko jendeak opariak ematen hasi bai-



Antton Maizek txuriz jantzitako azken partidua jokatu zuen jendez gainezka ageri zen Arantzako frontoian. Retegi II. arekin batera Retegi III eta Inaxio Errandoneari irabazi zien

zitzea. Opariak benetan ikusgarriak ziren eta emozioak Antton eta bere emaztearen begiak malkoz bete zituen. Bukieran,

Antton Maiz berak Retegi II bikote zuela, Retegi III eta Errandoneak pilota partidu ederra eskeini zuten. Ikuskizun bikaina es-

keini zuten eta jendea egitan gustora gelditu zen. Emaizta zen gutxienekoa baina Maiz eta Retegik irabazi zuten.

Arg.: OSKAR

Eskolako ikasleak sarituak

Arantzako eskola-ko goi zikloko ikasle-ek hezkuntza eta kultur lehiaketan parte hartu zuten, sari hauek irabaziz: Antzerkigintzan orijinaltasun sarian 25.000 pezeta irabazi zituzten 7. eta 8. mailakoek. Literaturgintzan, Atamordako Maite Goñik 30.000 pezetako balea irabazi zuen kirol denda batean gastatzeko. Dialektologian Nekane eta Ainara Maia Matxependordako ahizpek 40.000 pezetako saria irabazi zuten.

Bertzalde, Amaia Telletxea bortzgarren izan zen bertsolari txapelketaren finalean.



Lore eta landareak
Frain auzoa Tfnoa: 63 78 26
LESAKA



ALBERGIA
JATETXEA

© 634179
ARANTZA

ttipi-ttapa

6.000 harpidedun
20.000 irakurle

Winterthur

Sociedad Suiza de Seguros

Bulego berria BERAN
Legia Karrika 1, behea
BERABI, S.L. Agentzia

Aseguru mota guztiak

- Etxebizitza
- Kotxea
- Istripua
- Bizitza
- Jubilazioak

Tfnoa: 630601 - Faxa 630805

Sunbilla

1a 200 milioi pezetako udal aurrekontua izanen da aurten

Joxemiel Zelaieta izanen da Ulibeltzak elkarteko lehendakaria, azken batzarrean onartu zenez

IXABEL ETA JOSUNE

199.451.245 pezetakoa izanen da aurten udal aurrekontua. Diru irteera handiena inbertsioetan izanen da, 160 milioi t'ardi aurrekusiak baitaude kontzeptu horretan. Horietatik, 67 milioi zeharbidea berritzeko erabiliko dira, 40 milioi Udaletxea konpontzeko, 30 milioi baserrietarako pistak egiteko, 15 milioi bi karrika urbanizatzeko, 7 milioi saneamendu lanetarako. Bertze gastu garrantzitsua langilegoa ordaintzea izanen da, ia 11 milioi t'ardi joanen dira horretan.

Diru sarrerei dagokienez, subentzioen bidez 120 milioi lortzea espero da.



Ezkerreko argazkian, mandarrarekin, Joxemiel Zelaieta Ulibeltzak elkarteko lehendakari berria eta ondoan bodegazaina. Eskuinekoak, lehengo juntako Joxemi eta Rakel, lehendakaria eta Jexux Mari sukaldariarekin batera



Junta berria Ulibeltzak elkartean

Ulibeltzak elkartek zuzendaritza batzordea berritzeko hauteskundeak egin ditu, bi urtero bezala. Oraingoan hauek izanen dira junta berria osatuko

duenak: Lehendakaria, Joxemiel Zelaieta. Lehendakariordea, Mikel Jorajuria. Diruzaina, Ainhoa Agesta. Idazkaria, Koro Zelaieta eta bokalal Mikel Mariezkurrena eta Fermin Zelaieta. Bilerak egin ondoren bere kargoak hartu zituzten,

orain arte zeudenaren eskutik, hauexek zirelarik: Hilario Urtxegi, Txus Iriarte, Aitor Zugarramurdi, Joxemi Petrirena eta Klemente Iriarte.

Hauteskunde giroa

Maiatzaren 28an os-

patuko dira Udaletxerako hauteskundeak eta zinegotzi nortzuk izanen diren jakiteko dago. Nahiz eta jendea bileretan dabilela ikusi, ez dago jakiterik oraindik zenbat lista aurkeztuko diren eta nor izanen diren bertan.

IBARROLA

HAURRENDAKO ARROPA • MERTZERIA

Parrokia 6 • Tfnoa: 45 04 63 • DONEZTEBE



AMEZTIA

Jatetxea - Hostala

Espezialitatea euskal sukaldaritzan eta pintxoetan

Tfnoa: 450028 • DONEZTEBE



TELLETXEA MOBLEAK

Eskeintza berezia somier eta koltxoietan

- 90KO KOLTXOIA 9.500 PZTA
- 135KO BIKOTE KOLTXOIA 12.500 PZTA
- 105KO KOLTXOIA 10.500 PZTA

EGURREZKO LAMINAK DUTEN SOMIERRAK

- 90KOA 5.600 PZTA
- 105KOA 6.400 PZTA
- 135KOA 7.500 PZTA

Kalitate hobetua eta 7 urte arteko garrantia

Rosa Seminario z/g Tfnoa: 45 02 58 - DONEZTEBE

Doneztebe

Udalaren aurrekontua 185 milioikoa izanen da

Idazkaritza berri eta Merkatarikari karrিকা aldeko leihoak moldatuko dira

TXEMA ETA KARMELO

185.356.154 pezetako aurrekontua izanen du aurten udalak, azkeneko batzarrean onartu zenez.

Diru sarrerak gehien bat ondorengo kontzeptuetatik lortuko dira: 1.815.799 pezeta kontribuzioen kontzeptuan, 8.457.802 pezeta zergen bidez, 60.919.636 pezeta subentzioen bidez eta 41.160.569 pezeta tasa eta bertzelako diru sarreraren bitartez.

Diru irteera edo gastuei dagokionez, zerbitzu eta ohiko ondaren erosketagatik 45.363.429 pezetako gastua aurreikusia dago. Langilegoa ordaintzeko 35.317.397 pezeta gastatuko dira. Bertze gastua, Bidasoa-Berroarango juntak eskatutako prestamo edo maileguaren interesen ordainketa izanen da, 8.163.880 pezeta.



Herriko 40 bat gaztek konfirmazioa edo sendotza egin zuten

Argazkia: MENA

Zuzendari berria

Cristina Arregi Apeztegia izanen da hemendik aitzinera Doneztebeko Irakasleendako Laguntza Zentruko zuzendari berria. Honela erabaki zuten apirilaren leian Javier Markotegi Nafarroako Gobernuako Hezkuntza eta kultur kontseilariak.

Idazkaritza moldatuko da abudo

Herriko Etxeko idazkaritza berri eta Merkatarikari karrিকা aldeko leihoak moldatu egingen dira abudo. Moldatze honen kostoa 4 milioi t'erdi pezetakoa izanen da, mobiliario gastua ere barne delarik.

ttipi-flash

❖ Irratia

edo Telemobila erosi du udalak langileak elkarren artean komunikatzeko.

❖ Taberna berria

ideki da Osasun Zentro parean. Musika taldeen arialdiak eta bertze zenbait ekitaldi egingen dira.

Personaia



Jose Luis Olaizola Euskal abizenen eskudo egilea

Zein da zure afizioa?

Eskudo heraldikoak oleoan eta kristaletan grabatuak egitea.

Zehaztuko duzu gehiago?

Abizen euskaldun gehienek badute bere eskudoa eta batzuk bat baino gehiago. Oleoan bozetoak eta koadroak ere egiten ditut, gibelesko aldean abizenaren historia paratuz.

Edozein kristaletan egiten duzu?

Bai, gehienak ispilu, kopa eta pitxerretan. Eskudoak gain edozein grabatu ere egiten dut.

Noiz hasi zinen?

Duela hiru urte honetan, bainan marrazkiak egitea beti gustatu izan zait.

Edozeini egiten diozu?

Bai, aski du 450072 telefonora deitzea edo niregana etortzea, Herriko Etxearen ondoan bizi naiz.

FUNERARIA ZERBITZUAK DONEZTEBEN



MALDAERREKA, S.L.

24 ordutako zerbitzua
Iruñea-Donostia-Irungo ospitaletatik
edozein herritara trasladoak
Tfnoa: 63 74 04 • LESAKA

BELARRA Kafetegia

Plater Konbinatuak

Amezia 3, Tf. 45 03 06 • DONEZTEBE



SANTAMARIA Jatetxea

Espezialitatea euskal sukaldaritzan
Eguneko menua eta karta
Nagusia 30, Tf.: 45 00 43 - DONEZTEBE

Berizarena

Narbarteko emakumeen afarian 26 lagun elkartu ziren

Gazteenak hamazazpi urte bertzerik ez zuen bitartean, zaharrenak lautanhogeita bi

TXEMA ALDABE

Nahiz eta emakumeen eguna martxoaren 8an izan, Narbarten 18an ospatu zen. Bigarren urtea izan da hau, senarrak, haurrak eta etxeko lanak utzita, emakumeak mahaiaren inguruan jarri direla ordu batzuk elkarrekin gustora pasatzeko. Denetik izan zen: afari goxo-goxoa, txisteak, bromak, irriak, karkarak, sekulako kanta zerrenda, musika, dantza... Eta kontu kontari, abesti eta dantzen artean, ohartu gabe goizeko hiru t'erdia ailegatu ziren. Denak umore onean eta giro eder ha-



Emakumeen afarian giro aparta bizitu zen

ren bukaera ailegatzea nahi gabe. Eta besta egiteko adinak inportzen ez duenez, hantxe

bildu ziren 26 emakume, 17 urtekoa gazteena eta 82 urtekoa adintsuena. Akordeo-

laria ere herritarra zela erran behar da eta gaztea izan arren, ederki moldatzen zen jen-

Donamaria

Karrikako argiak 7 milioitan eginen dira

Donamariako Uxarretik Azkarragara eta komentutik Arztean auzora dauden bi deetan argi berriak jarriko dituzte. Obra berriki adjudikatu zitzaion Lizarrako enpresa bati 7 milioi pezetatan, hasierako prezioa baino %16a merkeago.

dea animatzeko. Besta akitu zen, baina heldu den urtean elkarrekin prest daude.

Malerreka

Baratze biologikoei buruzko ikastaroa antolatu du Behinpiniek

Interesatuiei, apirilaren 24ean Malerrekako euskaltegian eginen den bilerara joatea eskatzen zaie

TTIPI-TTAPA

Baratzetako lurra nola zaindu, ongari diferenteen erabilgarritasunak, zer egin landarren xomorro eta gaitasunekin, barazkien errotazioa, sendaberrak... guzi horren berri emanen da Behinpiniek antolatu duen ikastaro honetan.

Apirileko azken larunbat arratsaldean hasi eta maiatzeko lehenbiziko hiru larun-

bat arratsaldetan ematea pentsatua dute Malerreka aldeko baratze desberdinetan, eta interesatuiei, apirilaren 24ean, astelehenean, arratsaldeko 8etan Doneztebeko Euskaltegian eginen den bilerara joateko eskatzen zaie. Ikastaroaren prezioa 5.000 ptakoa izanen da.

Ezkurrako Juan Ramon Merchan-ek bi kilo pasatutako amorraina arantzatu zuen Iturenen





Sei haize errota jarriko dira Mendaurko magalean

Udala eta EHN enpresaren artean sinatutako komenioaren arabera, urtero 1,2 milioi jasoko ditu herriak

IBAN ISASI

Komenioa sinatu dute Nafarroako Energia Hidroelektrikoa elkarteko anonomoak (EHN, S.A.) eta udalak 2.075 urtera arte. Sei haize-errota jarriko dituzte Mendaurko magaleko lur komunaletan. Instalakuntza lanetan 41.000 m² erabiliko dituzte eta lanen ondotik, 4.200 m² beteko dituzte. 200.000 pezeta jasoko ditu udalak generadore bakoitzeko urtero (1,2 milioi pezeta urtean).

Haize errota hauek, inguruan eta garai beretsuan jarriko diren bertze batzuekin batera egingen dira. Era honetako energiaren produkzioa haundituz doa azken aldi honetan Nafarroa osoan. Informazio gehiago nahi izanez gero udaltxean lortzen ahal da.

Bertso afaria suspenditua

Jende gutti apuntatu zen apirilaren lehenenerako antolatutako bertso afarira. Hau dela eta, Xabier Amuriza eta Xebastian Lizasok bertsoak kantatu behar zituzteneko afaria bertan behera utzi zuten martxoaren 30ean antolatzaileek.


Lapurrak Maiztematean

Apirilaren 5ean, asteazkenean, lapurrak sartu ziren Maiztematean. Dirua eraman zutela antzeman zuten.



EZ EMAN BUELTA GEHIAGORIK. ZATOZ CAJA RURAL-era.

ERRENTA AITORPENA 1994



EGINZAZU AITORPENABIDE ZUZENENETIK

- Bizkortasuna** Itzulketak bizkortu edo ordainketak atzeratzeaz arduratzen gara.
- Aholkularitza** Aitorpena egoki egiteko beharrezko informazio guziaz eskeintzen dizugu.
- Erosotasuna** Aitzinetik ordua eskatuta atentituko zaitugu harat honatean alferrik ibili beharrik gabe.
- Dohaineko zerbitzua** Aitorpena dohainik egin eta tramitatuko dizugu.

NAFARROA OSOAN 105 BULEGO BAINO GEHIAGO ZURE ZERBITZURA.



CAJA RURAL DE NAVARRA

Goizueta

Sari garrantzitsuak herriko eskoletako hainbat ikaslerentzat

Pilotan ere, txapel haundiak sartu dira herrian azken asteotan

ESTEBAN AROZENA

Nafarroako Gobernuko Kultura eta Hezkuntza sailak literaturgintza eta dialektologia arloetan antolatutako lehiaketak emaitza ezin hobekak izan ditu herriko eskoletako ikasleentzat. Nahiz modalitate batean nahiz bestean, lehen postuetan egon dira goizuetarrak.

Hiru lehen sari, hiru bigarren eta beste hiru hirugarren ziren banatu beharrekoak arlo bakoitzean. Horrela, literaturgintzan 50.000 ptako. lehen sarietako bat Jone Perurenak eskuratu du, Saioa Tabernak 40.000 ptekin



Nafarroako Gobernuko literatu lehiaketan saritutakoak eta mus txapelketako finalistak Miren Uitz

bigarrena, eta Maite Apezetxeak 30.000 ptekin hirugarrena. Dialektologian berriz, Mikel Etxeberria eta Eneritz Arozenak lortu dute lehen saria bakoitzak 50.000 pta. eskuraturaz.

Hau dena asko bada, pilotan ere txapel haundiak sartu dira herrian. Hil honen leian jokatu ziren Labriten Nafarroako afizionatuen txapelketaren finalak, eta bertan, Asier Olaizola, Goñi lagun



zuela, Aiestaran eta Satrustegiren aurrean nagusitu zen. Juantxo Apezetxeak, berriz, manimanoko txapela eskuratu zuen Sanzen kontra.

Luis Mari Azurmendi eta Jose Luis

Iribarrenek eraman zuten Umore Onako mus txapelketaren lehen sariak, eta Antonio Zubeldia eta Juanito Eskuderok bigarrena. Trukeko txapelketa ere joan den larunbatean jokatzekoa zen.

Areso

Itxura berria ematen ari zaio eliza inguruari

Asun Companys izango da idazkaria hilabete batzuetan

JUANA M^o SAIZAR

Eliz ondoko parajeak berritzen ari dira. Asfaltatu dute, zirkulogisan, kotxeak birorabidetan ibiltzeko moduan. Ezker aldeko parera berritu eta barandak berria jarri dute. Elizaren igoeran harrizabal gorrixta jarri behar dute, modu honetara aurretik zegoen galtzada estaliz. Elizaren atrioa beste harrizabal txuri batekin



moldatuko dute, kanposantuen sarrera be-

zalaxe. Kanposantuen atea berritu eta

teilatua egin diote sarrierari.

Idazkaritza

Asun Companys idazkari berria izango dugu hilabete batzuetan. Euskalduna da eta ordutegi berria hau izango da: astelehena eta osteguna 9etatik 2etara, asteartea 9etatik 2etara eta 3etatik 7etara.

Sokatira

Sokatira taldeak emaitza onak lortzen ari da. 640 kiloko txapelketan bigarrena izan zen.

Eliza inguruak itxura berrituak agertuko dira hemendik gutxira. Dagoeneko lanak hasiak dira
Arg.: Artixiboa



Jubilatuen egoitzak kalefakzioa jartzeko laguntza jaso du

600.000 pezeta eman dizkio Nafarroako Gozernuak

JOSEBA AZPIROZ

Nafarroako Gobernuko Ongizate eta Etxebizitza sailatik 600.000 pezeta diru-laguntza luzatuko zaio Leitzako Jubilatuen Elkarteari bere egoitzako kalefakzioa egoitzeko.

Korrika

Nahiz eta korrika aurten Leitzatik ez igaro, eskolakoak kalera atera ziren euskararen aldeko beren korrika propioa egiteko. Ilusio handiaz aritu ziren aurreko asteetan pres-taketa lanetan. Korrika bukatutakoan arratsaldekoa egin zuten.



Andres Perezek irabazi zuen Leitzako XVII. crossa senior mailan. Emakumetan, Maika Ariztegi nagusitu zen. Benjamin mailan Alain Diaz eta Ainhoa Arrate izan ziren irabazleak. Alebinetan Oinatz Bengoetxea eta Amaia Ruiz. Infantiletan Igor Bereau eta Garbiñe Martiarena. Jubeniletan Jose Manuel Cestero eta beteranoetan Fc. Andres eta Esther Estefania. Aurten, iaz baino partaide gehiago izan dira.

ttipi-flash

Idazkari berria

Eugenio Zelaja, 24 urteko irundarra da herriko sekretario berria. Dena den, lan deialdi honetan euskararen ezagutza nahitaezko baldintza izanangatik, errekurtsio bat dago jarria epaitegietan, deialdiaren baliogabetzea eskatuz.

Zinea bukatu da

Aurtengo zine denboraldia 800.000 ptako defizitarekin bukatu da. Emaizta hau ikusirik, bali-teke datorren sasoi-an zinerik ez izatea.



Soroko Jose Miguel Zabaleta eta Pakita Garinek urrezko eztaiak ospatu zituzten, apirilaren 1ean. 1945-eko apirilaren 4ean ezkonduak dira. Zorionak eta urte askoz.

ttipi-ttapa

5.900 harpidedun
20.000 irakurle

Zure klienteek irakurtzen dute Zure publizitateak ttipi-ttapan



Esteban Vicente

Luis eta Lazaro lankideen aita

Nere hortzetan itzaliko den azken antsia beste batenetan loratuko den lehen irria izanen da

TTIPI-TTAPAKO lankideak

Baztan

Polikiroldegi eta pizzinak zaintzeko lanpostua lehiaketara aterata da

Hogeitabotzgarren urteurrenaren ospakizunekin segitzen dute Baztan ikastolan

JOSEBA IGARABIDE

Udalak, polikiroldegiko eta Lekaroz eta Elizondoko igerilekuen zainketarako lanen ezaugarriak eta bete beharreko baldintzak karrikaratu ditu. Kontratazioak lehiaketa bitartez egingen dira.

25. urteurrena

Baztango kultura aztergai izan da Baztango ikastolaren 25. urteurrenaren ospakizunetan. Apirilaren 6an, Baztango ahozko eta idatzizko hizkuntza eta batuari buruzko hitzaldia. Lapitz eta Bruno Etxenike idazle baztandarretaz aritu zen Pello Salaburu eus-



Zozaiako jauregia sutan kiskaltzeak, suhiltzaileen gaueko zerbitzuari buruzko zer errana sortu du inguru honetan

kaltzaina. Biharamonengan, 'Baztango euskalkia musikan' gaia jorratu zen. Hainbat ekitaldi prestatu dituzte honetaz gain, batez ere tikiendako: bertso tailerra Egaña eta Peña-

garikanorekin, paper birziklatu tailerra, Zugarramurdira ibilaldia, buruhaundi eta go-maespuma tailerra...

Euskara teknikaria

Baztango euskara teknikarien lanposturako azterketa aitzine-ra doaz eta bortz emakume gelditzen dira postu bakarrerako. Lerro hauek idazterakoan azken proba egin

27 milioi eskuratuko ditu udalak zirkulazio zergaren bidez

Zirkulazio zergatik 26.838.155 pezeta biltzeko asmoa du aurten udalak, azken udal errolda aztertu ondotik. Ibilgailuak dituztenek, maiatzaren 2ra arte izanen dute norberaren borondatez zerga ordaintzeko. Ondotik, luzapen bat izanen da ordaintzen

ez dutenendako, ekainaren 30a arte. Tarte honetan ordaintzen dutenek, ordea, %5 gehiago ordaindu beharko dute.

Epe hau pasatuta oraindik ordaindu ez dutenak udalarekiko zordunak izanen dira eta apremio bidez ordaindu beharko dute.



Maiatzaren 2ra arteko epea izanen da zirkulazio zerga ordaintzeko

ttipi-flash

Lurrikara

Apirilaren 5ean, arratsaldeko 2,22etan lurrikara izan zen, nahiz eta baztandarrek konturatu ez. Nafarroako Gobernuak dioenez, Richter eskalan 3,1 indarreko lurrikara izan zen eta epizentroa Lekaroz eta Elizondo artean zuen.

Iurritako

Guraso elkarteak ikastaro batzuk antolatu ditu, haur eta gazteen heziketan laguntzeko.

Xotero Etxandi

Espetzez aldatu eta Toledora eraman dute. Garzon epaileak deklarazioa hartzeko zain dago oraindik.

Udala - INEM

Udalak INEMen laguntzaz hainbat lan egingen ditu Azpilkueta, Almandoz, Arraiotz eta Lekarotzen.

Aritzakungo

pistak abenduko euriteen ondotik izandako kaltea aztertu eta moldatzea eskatu zaio Nafarroako Gobernuari.



Pierresenea

OSTATU - JATETXEA

Jaki Tipikoak • Etxeko Giroa

Iturriotz Auzoa • © 592043 • ORONOZ-MUGAIRI

SAS KAITZ
fontanería
calefacción



**Era guzietako instalazioak:
Etxekoak, industrialak...**

Santiago 55 • Tfnoa: 581171 • ELIZONDO

Baztan

Udal hauteskundetarako zerrendak osatuxeak

Union Baztanesa eta Herri Batasunak zerrendaburu berriak aurkeztuko dituzte

JOSEBA IGARABIDE

Lerro hauek idazte-rakoan zerrendak guz-tiz osatu gabe badau-de ere borts izanen di-ra seguren aurkeztu-ko diren taldeak.

Union Baztanesa berritze prozesuan sar-tu da eta zerrendabu-ru Felix Gonzalez izan-en da. Eusko Alkarta-sunak zerrendaburua errepikatuko du, orain-go alkatea den Patxi Oiartzabal. Herri Bata-sunak kandidatura ber-rituko du eta ziurta-zerik ez badago ere, Joxemanuel Auzmen-di albaiteroa izanen da zerrendaburu eta Mikel Altzuart bigarren.

PSOEk zerrenda era-baki gabe du, baina Pe-dro Perez Uriz izanen da buru, azken legeal-dian bezalaxe. Diru-dienez, Juanito Meoki iruritarrak ere zerren-da bat aurkeztuko du, orain lau urte bezala.

Kanpainan ez ba-gaude ere, kinielak martxan hasiak dira.



MIGEL ARROSAMENA GAZTE ERRATZUARRAK ORDENADOREA IZANEN DU ETXEAN

Migel Arrosamena Elizetxe, 14 urteko gazte erratzuarrak ordenadore bat izanen du etxean ezin-duei zuzendutako 'Ni-noska' izeneko saria bere eskuetara joan baita. Modu honetan, Elizondoko es-kolan hartzen dituen ikas-ketak etxean osatu ahal izan-en ditu. Migelek burmuin paralisia du eta milioi bat pezeta balio duen ordena-dorearen bidez, komuni-katzeko eta ikasteko errez-tasun gehiago izanen omen du.

Elizondoko COFES zentrua martxan dago apirilaren 10etik aitzinera

Elizondoko COFES zentrua, famili orien-tabide eta sexu he-ziketarako zentrua alegia, martxan da hila-ren 10etik aitzinera.

Oraindik kontsulta ematen hasi ez badira ere, edukatzailea eta

administratzailea la-nean hasiak dira eta or-dua eskatzen ahal da 580621 telefonora dei-tuz. Apirilaren 24tik aitzinera berriz, gine-kologoa eta erizaina ere lanean hasiko dira eta honela zerbitzu

osoa eskeiniko da. Eri-zain lana beteko duen Ixabel Aleman amaiur-tarrak adierazi duenez, "bertze zerbitzuen ar-tean haurdunaldi osoa, erdiketa ezik, zentru honetan kontrolatu ahal izanen da".

ttipi-flash

◆ Anizko frontoian

sarea paratzeak 443.160 pezeta gostako da. Herriko plazan zola berria paratzeko bertze 441.641 pezeta gas-tatuko dira.

◆ 67.000

pezetako dirula-guntza eman du udalak Carlos Orte-gak emandako 'al-tzari errestaurazioa' ikastaroa laguntze-ko.

◆ Erratzuko kanpina

apirilaren 8an ire-ki zen, Aste Santu-ko oporretarako. Zortzi langile ari-tuko dira bertan

◆ Azpilkuetako

elkartean bertso afaria izan zen api-ri-laren 8an Gorro-txategi eta Agirre bertsolariekin.



Ixabel Aleman amaiur-tarra izanen da zen-truko erizaina

ELIZONDO
Tel. 58 01 55

DONEZTEBE
Tel. Fax. 45 08 25

FOTO MENA

ZEURE JAUNARTZE EGUNEKO ARGAZKIAK HOBERENAK
IZATEA NAHI BADUZU ZATOZ FOTO MENARA

FOTO MENAN EGUN NABARMENAK
AHAZTEZINAK EGITEN DITUGU

PROFESIONALAK GARA
ETOR ZAITEZ ETA IKUS EZAZU

ESKATU ORDUA

QSS
FOTOS EN 1 HORA

IPINGI

ZATOZ ETA IKUSI
Santiago 88, Tfnoa: 580939
ELIZONDO

**UDABERRIKO ARROPAK, TELAK,
KONPLEMENTOAK, BISUTEGIA...**

*Behar duzun guzia
herritik mugitu gabe*

Sara

XII. Euskal Herriko Idazleen Biltzarra Bazko astelehenez iragan da

Euskal Herriko txapelketan laugarren serieko finala jokatu dute igande huntan Sarako Izarrakoak

MIXEL ETA JACQUELINE

Apirilaren 17an iragan da 12. Euskal Herriko Idazleen Biltzarra. 160 idazle biltzeakoak ziren, bakoitzak bere gisako eta bere heineko lekukotasuna ekarritz.

Aurtengoan antolatzaileek hats berri bat eman nahi izan diote ekitaldi huni eta Iparraldeko folk rock talde batzuk (Txakun, Sustrai, Xabaltx, eta bertze batzuk...) parte hartu dute eta beraien lanak salgai izan dira. Horretaz gain, mahain inguruak ere izan dira eta egun osoan Aita Donostiaren lanen aurkezpena egin da. Gazteen Etxean,



40 bat saratar eta beratarrek Senpere inguruan egin zituzten beren kilometrak Korrikan

arratsaldeko 5etan kantaldi bat iragan da, Beñat Axiari, Maite Idirin eta Imanol bezalako kantariak bertan izan direlarik. Idazleez gain, noski,

jende andana izan da kari hontarat hurbildu dena eta Bazko astelehene goxo baten pasatzeko parada ukan dute. Ez dute segururrik izanen.

Rugbya

Euskal Herriko txapelketan 4. serie deitzen den mailan ari dira, eta hein gorenean ailegatzeko dira. Pazkoz (apirilak 16) finala jo-

katu baitute Pouillon (Landes) ekiparen aurka. Finala hortarat helitzea oso zaila zegoen, egia erran. Finalerdiak Castets ekiparen aurka egin ziren bi aita-detan; lehena jokatu eta saratarrek 14 ttantto gibel gelditzen ziren. Bigarrenean (apirilaren 2an jokatutako) Sarako basurdek beren indar guztiak bota zituzten eta partido eder bat egin ondoren 23-3 irabazi zuten.

Kinto afaria

Afari hau Sarako Lastiry jatetxean eginen da apirilaren 22an, Zugarramurdi, Sara eta Urdazubiko gazteen artean. Dei egina da 1967 eta 1972 artean jaiok diren guztieri. Ongi pasa!

ERRATZU
OKINDEGIA

zure eguneroko ogia

© 453168 - ERRATZU

LARRALDEA



SAGARDOTEGIA

Asleartetik ortzirala betatik aitzinerat
Larunbata eta besta egunetan zabalk.

© 45 21 21 • LEKAROZ

TIBURCIO GOIENETXE ETXEBERE

ANZABAL
AGENZIA

■ Zurich Aseguruak

• Autoa, etxebizitza, istripu eta bitziza aseguruak

■ Lan aholkularitza

• Nomina eta Aseguru Sozialak

■ Aholkularitza fiskala

• Errenta Deklarazioak, IVA...

■ Inmobiliaria

• Baserri, borda, pisu, etabarren salmenta eta alokairua

■ Gestoria

• Ibilgailuen transferentziak, gidatzeko karnetaren berritzea eta edozein gisako gestioak

SANTIAGO 15 - Tfnoa eta Faxa: 580804 - ELIZONDO



ARMUA
Jatetxea

Zugarramurdiko karretera 3. Km

Tfnoa.: 59 91 31 - URDAZUBI

FZ
FOTO ZALDUA

KOMUNIOAK

Kanpaina berri honetan,
eskeintzen dizkizugun oroigarrien
artean baduzu non aukeratu.

Hartu ordua:

ELIZONDO ☎ 580491
DONEZTEBE ☎ 450364

EGUN HAUNDI BATERAKO
OROIGARRI ON BAT

Urdazubi


Hamekagarren mus txapelketa bukatu berria da

Angel Arozarena eta Domingo Borda izan dira txapeldunak eta Patxi Sansiñena eta Jaime Larralde txapeldunordeak


ALIZIA OLAIZOLA

Apirilaren lehenean, larunbat arratsean egin ziren Indianoa-baitako hamekagarren mus txapelketaren azken partidak. Txapeldunak, Domingo Borda eta Angel Arozarena geratu ziren. Erran behar da Domingok suerte ona eramaki duela azken urteotako mus txapelketetan, zortzigarrena, hamargarrena, hamekagarrena eta bertze zenbait gehiago berak irabazi baititu. Zorionak eta segi horrela.

Bigarren postuan Patxi Sansiñena eta Jaime Larralde geldi-



Angel Arozarena eta Domingo Borda txapeldunak XI. mus txapelketan. Txapeldunak eta txapeldunordeak, Patxi Sansiñena eta Jaime Larralde



tu ziren. Ondotik afaria leku berean eta dantzaldia Modestorekin izan zen. Giro polita izan zuten, txapelketako nerbioak atzendu zituztenez.

Itziar Galarregi, eskolako garraiolaria

Zugarramurdi eta Urdazubiko eskolako garraioa Zugarramurdikoak utziz gero Baztanesak egiten du.

Lan hau orain hementengo neska batek egiten du, Itziar Galarregik. Martxoaren 27an hasi zen txofer autobu-

sarekin eskolako garraioa egiten. Erran behar da ederki moldatzen dela autobus kozkor horrekin.

Zugarramurdi

Burdina edo txatarra biltzeko zerbitzua martxan ezarri da

Hilabeteko lehendabiziko asteazken goizetan kontenedore ondoan utzi beharko dira zabor hauek

KORO ETA MARGARI

Orain arte herrian ez zegoen burdin edo txatarra biltzeko zerbitzurik, eta bakoitzak ahal zuena egiten zuen beren hauekin. Normalki, Meoki izaten zen, partikulari abisatuz haien eske pasatzen zena.

Bainan apiriletik aintzina udalak bere kargu hartu du zerbitzu hau eskeintzea eta



Zurezko, plastikozko eta bertze materialetako hondakinak ez dira burdinezko txararrarekin batera bilduko.

hemendik aintzina hilabetearren lehendabiziko asteazken goizetan kontenedore ondoan utzi beharko dira zabor hauek, arratsaldean pasatuko baitira biltzera. Espreski jakinarazten da burdin edo txatararako tresneriak izan behar dutela eta ezin izanen direla zurezko, plastikozko edo bertze halako materiale desberdinik atera.

EZKONTZAK

Jorge Azkarate Morales eta **Sara Elizondo Gelbentzu**, Elizondokoak, martxoaren 25ean.

Manuel Intziarte Irureta eta **M^a Teresa Ariztegi Etxepeteleku**, Oronoz eta Iturengoa, martxoaren 31n.

Jesus Serafin Dendarieta Lucas eta **M^a Isabel Elizaintzin Vicente**, Erratzu eta Iruritakoa, apirilaren 1ean.

Bixente Iriarte Agirre eta **M^a Pilar Altzugarai Larralde**, Narbarte eta Lesakakoa, apirilaren 1ean.

JAIOTZAK

Jon Mikelarena Subizar, Legasakoa, martxoaren 28an.

Maria Telletxea Apeztegia, Doneztebekoa, martxoaren 17an.

Eric Libier, Sarakoa, martxoaren 20an.

May-Lie Mendi, Sarakoa, martxoaren 2an.

Joseba Anton Inda Elizegi, Erratzukoa, martxoaren 18an.

Jaione Mitxelena Arizaleta, Lekarozkoa, martxoaren 18an.

Iratxe Saitua Etxeberria, Elizondokoa, martxoaren 29an.

Oinatz Jauntsaras Erkizia, Iruritakoa, martxoaren 28an.

Izaskun Oskoz Mazizior, Lesakakoa, martxoaren 24an.

Manex Ormazabal Arregi, Zubietakoa, martxoaren 23an.

Garbiñe Olazar Bazterrika, Elgorriagakoa, otsailaren 2an.

Julen Suarez Antxordoki, Igantzakoa, otsailaren 17an.

HERIOTZAK

Eulogio Inbuluzketa Galindo, Doneztebekoa, otsailaren 27an, 68 urte.

Martxelo Desaeagher, Sarakoa, martxoaren 25ean, 62 urte.

André Larroude, Sarakoa, martxoaren 20an, 77 urte.

Antonio Garcia Grande, Elizondon, martxoaren 23an, 64 urte.

Miguel Jose Bajo Montilla, Elizondokoa, martxoaren 25ean, 47 urte.

Antonio Astiz Iribarren, Elizondokoa, apirilaren 4an, 59 urte.

Miguel Otxotorena Burges, Oronozkoa, apirilaren 4an, 85 urte.

Lino Aranburu Olaizola, Ezkurra, martxoaren 24an, 88 urte.

M^a Jesus Santesteban Santesteban, Zubietakoa, apirilaren 3an, 63 urte.

KIROMASAIA

Iñaki Razquin

KIROL MASAIA

- Besoa - Belauna
- Ukalondoa - Zurmioa

GIHAR LASAITZEA

BIZI MASAIA

- Zerbikalak - Kaderak
- Lunbarrak - Ziatika eta sasi-ziatika

ERLAJAZIO MASAIA

Gihar kontrakzioak, lanean postura txarrean egoteagatik...

TERAPEUTA DIPLOMATUA

Kontsulta leku zentrikoan
(Urdanibia Plaza ondoan)

Larretxipi 17 Behea - IRUN Tel: 943-63 34 81

Ordutegia: Astelehenetik ortzirralera 16.00tik 20.00ra

Larunbatetan 10.00tik 14.00ra

R.P.S.: 199/94

ARLA


ARDOATEGIA

Ardoak • likorrak •
freskagarriak

Santiago 56, Tfnoa: 45 32 66 • ELIZONDO

ttipi-ttapa

5.900 harpidedun
20.000 irakurle



*Esker Onak
Urtemugak
Eskelak*

Familiakoren bat edo
lagunen bat hiltzen bazaizu

ttipi-ttapak

eskelak, urteurrenak edo
esker onak agertzeko toki
bat eskeintzen dizu.

Deitu gure telefonora:

☎ 63 11 88

BEHARREZKO TELEFONOAK



SOS Nafarroa eta

Urgentziak.....088/061

Osasun Zentruak

Elizondo..... 452367 / 580235

Doneztebe 450300

Lesaka 637428 / 637336

Leitza 510248 / 510573

Nafarroako Ospitaleak

Nafarroako Ospitalea 102100

SSko Urgentzi

Zerbitzua 246750

Virgen del Camino

Erresidentzia 109400

Gurutze Gorria 226404

Gipuzkoako Ospitaleak

Irungo ospitalea 614600

Gipuzkoako ospitalea 460299

Erresidentzia 453800

Anbulatorioak

Irun 630264 / 621106

Anbulantziak

Oitz 450242 / 450805

DYA

Lesaka

(Larrialdiak) (943) 464622

Doneztebe

(Larrialdiak) 171717

FUNERARIA

Doneztebe 637404

Elizondo 580924

Lesaka 637404

Suhiltzaileak

Ornoz-Mugairi 592255

Garraioak

Bidasotarra 631150

Baztanera 580129

Leitzaran 515018

Aberiak:

Iberduero 450335 / 450336

Hasiak dira harrapatzen sasoi honetako lehenbiziko izokiak Enderlatsa parean. Argazkian ageri den hau, 6,100 kilo-koa, martxoaren 31n harrapatu zuen Azpeitian bizi den Jose Manuel Asiainek eta Iruñeko 'Hartza' jatetxera saldu zuen 85.400 pezetatan (14.000 pezeta kilo, 560 libera inguru).

Sasoi honetako lehenbiziko izokia, halere, Doneztebeko Miguel Ibarrolak arrantzatu zuen. Ibarrolak harrapatutakoak 4,550 kilo pisatu zituen, eta lagun batzuri oparitzeko gorde zuen. Martxoaren

31n, bertzelde, Bidasoako Izokiari buruzko dokumentala erakutsi zen Berako Kultur Etxean. Pelikula Nafarroako Gobernuak Javier del Castillo kontseilariak aurkeztu zuen eta jende ugari agertu zen emanaldira.



Ornozko suhiltzaileen Parkeak errekurtsio guttiegi ditu gavez

Apirilaren hasieran Zozaian erretako etxeak, haserre bizian jarri ditu Ornoz-Mugairi eta Baztango jendea.

Ageri denez, gaueko 10etatik aitzinera bakarrik bi suhiltzaile egoten dira Ornoz-Mugairiko Parkean, eta jendeak dienez, 'horrela ezin da sute bat gertatzen denean behar bezala atentidu'.

Zozaia Ornoztik hiru kilometrotara dago, eta Zozaiarrek diotenez, sutea gertatu zen gauean '35 minutu' behar izan zituzten Zozaiaraino ailegatzeko, eta bakarrik bi suhiltzaile zirenez, 'ez ziren nahikoak halako sutearen kontra behar bezala jokatzeko'. Gainerako suhiltzaileak Iruñeko Parketik etorri behar izan zuten, eta bidean 'kasik ordu bat pasatzen da, eta ordu batez, baster guziak kixkaltzeko denbora ematen du'.

Giltzaren bila
Lehiaketa

Izen-Deiturak.....
Helbidea.....
Herria..... Tfnoa:.....
Giltza orrialdean dago. Zebazki, zein tokitan?

Kupoi hau moztu eta Bera, Doneztebe, Leitza edo Lesakako EUSKADIKO KUTXAREN sukurtsaletan utzi lehenbailehen.
LEHIAKETA HONEN OINARRIAK 151. ALEKO AZKEN ORRIALDEAN AGERTU ZIREN

Aldi honetako jatetxeak Almandozko BEOLA eta BERAKO ANSONEA CAJA LABORAL EUSKADIKO KUTXA

Hurrengo lau hilabeteotan, otsaila, martxoa, apirila eta maiatzean, bi lagunendako **8 ordu** (bakoitza 15.000 pezetako afari edo bazkaria) **zozketatuko dira** EUSKADIKO KUTXAREN **giltza aurkitu dutenen artean**.

Giltza aldizkari honetako edozein tokitan egoten ahal da. Orrialde honetako publizitadedekoak ez du balio. **Bilatut** eta aukitu duzunean, **bete ondoko kupioa edo deitu beheko telefonora**.

TELEFONUZ DEITZEKO ORDUTEGIA:

Astelehenetik ostiralera goizeko 9etatik gaueko 10etara
Larunbatetan goizeko 9etatik arratsaldeko 3etara



901 - 333444
Anima zaitetz parte hartzera!!

XVI. Baztan-Errekako laxoa txapelketa apirilaren 9an hasi da

Aurtengoan bederatzi taldek parte hartuko dute, zazpi herrietako ordezkariekin eta bertze biak herri bat baino gehiagoko pilotariekin

Apirilaren 9an hasi zen Baztan-Malerrekako laxoa txapelketaren XVI edizioa, aurtengoan bederatzi talderen partehartzea izanen duena.

Zazpi taldek herrietako ordezkariak izanen dira (Arraioz, Iurrita, Doneztebeko hiru talde eta Oitzko bi) eta bertze bi talde herri bat baino gehiagoko pilotariak bilduko ditu (Erreka taldeak, Donamaria eta Doneztebekoak eta Zubigorri taldeak, Arraioz eta Iruritakoak). Errekakoak Doneztebeko plazan jokatuko dituzte etxeko partiduak eta Zubigorrikoak berriz, Arraiozko plazan.

Txapelketa aitzinetik zenbait partidu antolatu dira, pilotariak forma onena hartzeko intentzioz.



Laxoa elkarteak prentsaurrekoan aurkeztu zuen aurtengo Laxoa txapelketa

Argazkia: KARMELE

FINALA PLAZA NEUTRALEAN

Taldeak bi multzotan banatu dira eta hasieran liga modura jokatuko da. Multzo bakoitzeko lehen bi sailkatuak finalerdiak jokatuko dituzte bi par-

tidutara eta finala ekainaren 25erako iragarrita dago. Finalean ere berrikuntza izanen da aurtun, plaza neutrala izanen baita, finalerdiak iristen diren bi taldeak herri berekoak ez badira, behinpein.

BERTZE TXAPELKETAK

Laxoa denboraldia Baztan-Errekako txapelketarekin hasiko bada ere, ez da txapelketa bakarra izanen. Laxoa elkarteak prentsaurrekoan jakinarazi zue-

nez, "abuztu eta iraillean konpetizioa izanen da berrito, Kopa txapelketa jokatuko baita kanporaketa sistemaren bidez". Udan zehar, infantil eta juvenil mailako txapelketak jokatuko dira.

Gaztetxoek txapelketa hauek laxoa mantentzeko oinarrikoak badira ere, antolatzaileek aski ongi dakite etorkizun handiena duten pilotariak erremontera pasatuko direla, azken urteetan gertatu den bezala.

Hurrengo partiduak

95-IV-23

Doneztebe C - Doneztebe B
Doneztebe A - Arraioz
Oitz A - Oitz B
Zubigorri - Erreka

95-IV-29 edo 30

Oitz B - Erreka
Iurrita - Oitz A

Tiburcio ARRAZTOA, Laxoa elkartekoa:

«Laxoa mantendu eta herri arteko harremanak hobetzea dira gure helburu nagusiak»

Gure helburua laxoa kontserbatzea da, hau da, mantendu eta bultzatu, pixkanaka lehen jokatzen ziren plazetara bueltatzeko. Honetaz gain, herrien arteko harremanak hobetu nahi dira. Plazetan jokatzean ez da sarrerik ordaintzen.

Txapelketak dira laxoa salbatu behar dutenak. Ez du aunitzerako balio erakustaldiak egitea, Gipuzkoan, Iparraldean edo munduko pilota txapelke-



taren inguruan izanik ere, txapelketak bultzatzen ez badira. Txapelketak baitira, azken finean, pilotaria egiten dutenak eta publikoa

erakartzen dutenak.

Pilotan ez dago honelako ikuskizunik: Angelusa errezatu ondok (gure jokutik hartutako ohitura hau ere), laxoa txapelketa bat; plaza jendez gainezka eta profesionalak ez diren zortzi pilotari aurre, norbere herriko ohorea defendituz. Laxoa zaharra bizi-rik dago ordaindik eta azken urteetan egindakoa garrantzitsua da. Bainan galdera hau da: Noiz arte iraunen du?

Hamabostaldiko Jokaldiak



Laxoa Elkarteak

Azken urteetan laxoa bezalako altxor bat mantentzeko saiakera izugarria egiten ari dira. Aurtengoan hamaseigarren edizioa antolatu dute eta bederatzita taldek parte hartuko dute Baztan-Errekako txapelketan. Animo bada!

Juan Telletxea

Doneztebeko aizkolaria. Arria V. kontrario gogorregia izan zen Juan Telletxea aizkolaria doneztebarrarentzat eta herrian aritu arren ezin izan zion aurre egin. Hurrengorako hobeki prestatu beharko da, minutu t'erdi galdu baitzuen azkenean.

Mikel Saralegik 321 kiloko harria bizkar gainera altxatu zuen

Lehenbiziko saialdian huts egin bazuen ere, bigarrenean errekor berria ezarri zuen eta asteburu honetan kilo bat gehiago altxatzeko intentzioa zuen

Mikel Saralegik munduko marka berri bat ezarri zuen martxoaren 25ean Antzuolan 321 kiloko harritzarra bizkar gainera berdin zuenean. Aurreko errekorra egin zuenetik ia bi urte pasa zirenean bertze kilo bat altxatzea lortu zuen. Halere ez zen lan errexa izan leitzarrarentzat, lehenbiziko saialdian huts egin ondotik bigarrenean goratu baitzuen. Hau idazterako orduan, 322 kiloko altxatzeko saioa egin behar zuen Saralegik Anoetan. Izan ere, Mikel adierazten zuen bezala "puntu ona hartu dudanez aprobeztatzen saiatu behar naiz. Ahal den bezala aurrera segitu behar dago, zailena honerai-



Bigarren saioan hobetu zuen errekorra Mikel Saralegik D.Noticias

no ailegatzea baita". Errekorra egitea ez zela errexa izan onartu zuen. "Lehenbiziko

saioan huts egin ondotik hondatu xamar gelditu naiz, baina beste aukera bat gelditzen

zen eta dena emán beharra zegoen". Esan eta egin, bigarrenean altxatu baitzuen harria.

Bote fronton

- ❖ **Perurenak ezin**
Iñaki Perurenak ezin izan zuen 268 kiloko harri zilindrikoa esku bakarrekin altxatu. Iñakik erran zuenez, "gerrian balantza egindit eta ezin izan du". Joxe Bikondoa legasarrak aldiz, 10,70 metroko alturan moztu zuen 54 ontzako enborra, errekorra ezarri.
- ❖ **Telleteak apostua galdu**
Xabier Orbegozo, 'Arria V.ak' minutu bat eta 34 segunduko alde atera zion Juan Telletxea doneztebarrari Donezteben egindako aizkol apostuan.

Nafarroako ikastola arteko IX. Crossa Elizondon burutu zen

1.500 lagun inguruk, korrikalari, guraso eta irakasleak kontuan hartuz, bildu ziren Elizondon 'Euskaraz bizi, korrika egiten' lemapean Nafarroako ikastola arteko IX. Crossean parte hartzeko asmoz. Laugarren mailatik goitiko bortzehun bat korrikalarik parte hartu zuten laisterketetan. Eskualdeko ordezkariari dagokienez, hiru garaipen, bigarren postu bat eta hiru hirugarren postu lortu zituzten. Honela, 4. maila-

ko nesken artean Bera-ko Labiaga ikastolako Olaia Oliveira izan zen irabazlea. Maila bereko mutilen artean Baztan ikastolako Urki Munnarriz izan zen bizkorrena. Bortzgarren mailako nesken mailan Labiaga ikastolako Vanessa San Juan iritsi zen lehenik helmugara. Maila bereko mutilen artean, Baztan ikastolako Unai Arraztoa izan zen garaile. Seigarren mailako nesken artean hiruga-



Neska-mutiko aunitzek parte hartu zuten laisterkaldietan Arg.; ONDIKOL

rren postua eskuratu zuen Baztan ikastolako Iratxe Garmendiak, zazpigarren mailako muti-

koen artean ikastola bereko Txomin Petriorenak egin zuen bezalaxe. Zortzigarren mai-

lako nesken artean Baztan ikastolako Lorea Azkarate bigarrena izan zen.

AGENDA EGUNEZ EGUN

ERAKUSKETAK

ELIZONDO

► **Apirilaren 3tik 28ra** Arizkunenea Kultur etxean 'Detritus' izeneko margo erakusketa 7etatik 9etara.

KONTZERTUAK

DONEZTEBE

► **Apirilaren 21ean** gaueko 10etan, Ekaitza tabernan, Beltzez.

► **Apirilaren 23an** arrateko 7,30etan, Ekaitza tabernan, Anje Duhalde.

► **Apirilaren 28an** gaueko 10etan, Ekaitza tabernan, Nahita Nahiez.

► **Apirilaren 30ean** arrateko 7,30etan, Ekaitza tabernan, Txomin Artola.

AGENDA PRAKTIKOA

ERREZETA



Amuarrainak meuniere erara



Fernando
ELGORRIAGA
'Euskalduna'
Jaietxekoa
•BERA•

Osagaiak

• 4 amuarrain • 8 urdaiazpiko xerra • arraultze bat • 200 gr. gurin • limoi baten zukua • perrexila • ogirina •

Zartagi batean urdaiazpiko xerrak oliotan puxitzen jarriko ditugu. Gero, olio horretan bertan puxituko ditugu amuarrainak.

Bertze ontzi batean, meuniere saltsa prestatuko dugu. Horretarako gurina, limoia eta perrexila berotzen jarriko ditugu.

Saltsa hori loditu denean, amuarrainei gaintik botako diegu, eta serbitzerakoan, urdaiazpiko xerrak jarriko ditugu lagun-garri gisa. On dagizuela.

Prestatzeko manera

Lehenik amuarrainak ongi garbitu. Gatza eman eta irin eta arraultzean pasatu.

BASERRIA



❖ ZERRIKIA ❖

• **Zerrikumea** (20 kilokoa): 7.700 pza.
• **Zerri gizona** (95-100): 175 pza./kilo
• **Zerramak**: 135-140 pza./kilo bizirik.



❖ BEHIKIA ❖

• **Aretze gizenak**:
• **Idixkoak**: Pza./kg. Kanal
Extra 600
1.koa 570
2.koa 550

• **Urruxak**: Pza./kg. Kanal
Extra 610
1.koa 570
2.koa 540
Oharra: Prezio hauek 300-340 Kg. kanalean dauzkaten idixko eta 200-250 kg. dituzten urru-xentzako.
• **Aretze tikiak** (15 egun ingurukoak):
Nabarrak: urruak 23.000 eta idixkoak 37.000 Pza.
Mestizoak: urruak 42.000 eta idixkoak 50.000 Pza.
Behi zaharrak:
Behi nabar gizona: 420 Pza./Kg. Kanal. Behi gorri ona: 480 Pza./Kg. Kanal.

DATU ITURRIAK: EHNE,
ZUBIRIA MINDEGIAK...



❖ FRUTONDOAK ❖

Hiru urteko landare bakoitza

• **Bertako sagarondoa** 950.
• **Udareondoa** 950 pza.
• **Gereziondoa** 1.050 pza.
• **Aranondoa** 1.050 pza.
• **Muxika** 870 pza.



❖ BARAZKIAK ❖

• **Piper txorizero** zientoa 800.
• **Piper morro** zientoa 800.
• **Piperminak** zientoa 600.

koxkonta



Sagardotegia
zabalik

Deitu
erreserbak
egiteko

Otsango auzoa, Tfnoak: 627503 / 627519 • **LESAKA**

ttipi-ttapa

6.000 harpidedun
20.000 irakurle

ttipi-ttapan
Zure klienteek
ikusiko dute
zure publizitatea

Errenta Aitorpena 1994

Apirilaren 21ean zabalduko da 1995eko Errenta Aitorpena egiteko epea, eta ekainaren 20a bitarte zabalik izanen da (aurreko urteetan baino 10 egun guttiago, beraz).

Aitorpena zerga honen pean dauden errentak lortzen dituzten pertsona guztiek egin behar dute.

NORK EZ DU EGIN BEHAR?

Ez dute deklaratzeko beharrik familia osatzen ez duten subjeto pasiboek eta familia osatu arren, urteko milioi bat baino guttiagoko soldata gordina dutenek, eta eraberean, norberaren patrimonioaren haunditze gordina urteko 250.000 pezetara ailegatzeko ez denean.

Pentsioen kasuan edo aitortpen bateratuaren kasuan, 1.200.000 pezetatan izanen da muga.

Profesional edo enpresariaren kasuan, salmentak 2 milioi térdi pezetatik pasatzen ez badira ez dute deklaratzeko beharrik edo patrimonioaren haunditze gordina 25.000 pezetara ailegatzeko ez denean.



Etxean bizi diren seme alaba bakoitzengatik badago desgrabatze aukera

KENKARI MOTA ARRUNTENAK

Etxean bizi den seme-alaba bakoitzarengatik, baita aitortzailearekin etxean bizi diren guraso edo aitaxi-amatxiengatik. Bertze ohiko kenkariak, gaixotasun gastuengatik egiten dena edo etxebizitza erosi edo

moldatzeagatik izaten dira, baita sendagile pribatuaren (optika, dentista...) kontsulta eta bertze gastuak.

EZKONDUA EGONEZ GERO, ELKARREKIN EDO BANANDUA?

Separatuta ez dauden senar-emazteek elkarrekin aitortpen bakarra egin dezakete edo bertzenaz, bakoitzak berea egin aitortpen bananduen bidez. Kasu konkretuen arabera bat edo bertzea egitea komeniko da eta ezin da arau orokorra eman. Kutxa ezberdinetan informazioa eskatu eta horren berri emanen dizute.

FELIX SOLA
CAJA RURAL-EKOA

*Apirilaren 21ean
zabalduko da 1995eko
Errenta Aitorpena
egiteko epea eta
ekainaren 20a bitarte
zabalik izanen da.*

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

LESAKA:

- Egunero, arratsaldeko 4,30etatik 8etara.
 - Asteazkenetan, goizeko 10etatik aitzinera ere bai.
- Non:** MALDAERREKA S.L., Bittiria 6, Tfnoa: 63 74 04

IRUÑA:

- Bulego Zentralean: ARTEKARI, S.L., Tfnoa: 17 55 40
- Non:** Rioja Etorbidea 6, Atzelaldea Behean.

- Langile Autonomoak
- Nekazariak eta mendi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-kontratarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitortpenak
- Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bideragarritasun planak eta aurrekontuak

AGENDA EGUNEZ EGUN

IKASTAROAK

DONEZTEBE

► **Apirilaren 24an** astelehena, arratseko 8etan, 'Baratzagintza Biologikoa'ri buruzko ikastarorako bilera Malerrekako Euskaltegian.

BERTSO SAIOA

BERA

► **Maiatzaren 7an** arratsaldeko 5etan, Kultur Etxean Maddalen Lujanbio, estitxu Arozena, Peñagarikano, Egaña, Elizagoien eta Jon Sarasua arituko dira. Gai jartzailea Mikel Taberna.

GUARDIAKO BOTIKAK

► **Apirilaren 24tik 30era** Bera, Sunbilla, Elizondo (Lezaun) eta Goizueta.

► **Maiatzaren 1etik 7ra** Etxalar, Ituren, Elizondo (Iturralde), Leitza eta Goizueta.

► **Maiatzaren 8tik 14ra** Arantza Narbarte, Elizondo (Lezaun), Urdazubi eta Goizueta.

ETXEBIZITZAK

LESAKA. Pisu bat alokatu nahi dut. ☎ (943) 556427.

BERA. 23 m²ko bajera salgai Itzea karrikan. ☎ 630272.

BAZTAN-BIDASOA. 40.000-60.000 m²ko lur eremu erosi nuke animaliendako ura duena. ☎ 943-464632 (Koldo).

LESAKA. Bikote bat pisu edo etxe baten bila dabil. ☎ 631222 (arratsaldeko 5etatik Betara).

Baserría edo borda erosi nuke Baztan, Bidasoa edo Malerrekan. ☎ 229725.

BAZTAN- MALERREKA. etxe bat erosi nahi dugu. ☎ 580491 (Miguel-Arantxa).

IRURITA. Pisua alokatzen da, garaje eta ganbararekin. ☎ 144830.

BERA. Pisua salgai herraren erdi aldean. ☎ 631035.

BERA. 90 m²ko pisua eta trasteroa salgai. Kanttonberri karrikan dago. ☎ 630220.

DENETARIK

Kartelak, Buzoiratzeko paperak, Bisita txartelak, Faktura Talonarioak... egiten ditugu. Merke eta azkar. ☎ 631188. Bulego orduetan.

10 konpakto desagertu dira Eztegarra pilotalekutik. Aurkitu dituenak dei dezalla ☎ 630623ra.

Belarra igotzeko karro autokargadorea salgai, arras gutti erabilia. ☎ 451504.

IBILGAILUAK

Cagiva Trail motoa, NAV matrikuladuna eta 125 z.k.koa salgai. Prezioaz hitzegin dezakegu. ☎ 637948 (Beñardo).

AZIENDAK

Pekines arrazako zazpi zakurkume salgai, bi hilabetekoak. ☎ 631218.

Zelatzeko behorra (monturakoa) salgai, lau urtekoa. ☎ 637270 (lesaka).

LANA

Klase partikularrak Iruritan. Euskara, matematika, fisika, kimika, elektrizitatea, elektronika eta solfeo. ☎ 452188 (M. Urtasun).

Irakasle tituluduna eta EGArekin urte osoan Beran eta Lesakan klase partikularrak emateko prest. Euskera, OHO, frantsesa, REM... ☎ 630182-637839 (Klarisa).

Enpresaritza bukatu duen neska batek klase partikularrak emango lituzke Oronoz-Mugairin. Matematika, informatika (ordenadorearekin), etabar... ☎ 592253 (Itziar).

AGURRAK

Arraiozko Aitzibereri zorionak zure 10. urtebetetzeagatik (apirilaren 4an). Bere aita, ama eta anaia Mikelen partez.

Zorionak Berako Jon Urrozeri zure 14. urtebetetzean. Zure gelako lagun partez.

Berako neska-mutilen partez Cordelia eta Buztana oso ergelak direla

Sergio eta **Patrizia** ateratzea nahi dugu. Garaile.

Nere ametsetako pottoko maitagarrienari. Muxu haundi bat zuk dakizunaren partez.

Bidane eta **Imanol**: Berriz ateratzea nahi dugu.

Lesakako Jose Manuel A.ri: nahiz eta 24. urtebetetzea pasatua duzun, zutaz oroitzen gara eta zure lagunak garenez, opariek kontu haundia izatea aholkatzen dizugu. R.A.P.A.O.

Etxalarko Nekane R.ri.: nahiz eta zure 20. urtebetetzea pasatua den, zoriondu nahi zaitugu. Ongi garbitu.

Lesakako Patxi O.ri. zure 22. urtebetetzea denez, zure kontura kafe batzuk hartzea espero dugu. Ona al zegoen asteleheneko gosaria? E.L.A.U.S.




ttipi-ttapa Ameriketara

Zure senide edo lagun bat Ameriketara bizi eta aldizkaria bidali nahi badiozu, deitu eta informazioa emanen dizugu.

24 aldizkari Ameriketara bidaltzeak 8.000 Pta. balio du.

948-631188ra

*Etxeke tomatea
etxerako*



COMERCIAL
Larun

JANARI - BEREZIAK

Sara karrika, 4
Tfnoa. eta Faxe: (948) 63 08 83
BERA (Nafarroa)

MIRW

HIRI ARTEKO,
ESTATU BARNEKO eta NAZIOARTEKO
BIDALKETAK




*Paketeak eta dokumentuak
bidaltzeko modurik azkarrena*

- **GARRAIO URGENTEA:** Estatu guztian goizeko 10ak baino lehen entregatuko dugu.
- **24 ORDUKO ZERBITZUA:** Arratsaldeko 6ak arte entregatuko dugu.

ZERBITZU GARANTIZATUA

Martin Urrutia Etorbidea z/g
ORNOZ-MUGAIRI
Tfnoa eta Faxe: 592179



zimeldi

**MERKATUKO
AUKERARIK HAUNDIENA**

- ⇒ Logela, sukalde edo bainugelako armairu enpotratuak aukera ugariko akaberetan.
- ⇒ Armairu barneak.
- ⇒ Armairu aitzinaldeak (frenteak).
- ⇒ Gela erdibitzeko ate korrederak.
- ⇒ Apalak.
- ⇒ Liburuendako apalategiak.

**ESKATU AURREKONTUA
KONPROMISORIK GABE**

Zimeldi • Tfnoa: 38 70 17 • ETXALAR